

151111K

Pedagogi aldizkaria 16

1992

Eskola

AZKUE BIBLIOTEKA

Plaza Barria 15

48005 BILBO




uskal Eskola Publiko Berrir
"DENON ARTEAN"

eztabaidan

SORGINAK ETA EUSKAL HERRIA



ROBOTEN MUNDU KEZKAGARRIA



ANTZINAKO EGIPTON BARRENA



OINARRIZKO LIBURUTEGIA

- Erreformarako liburu-bilduma.
- Irakasleei begira egindako materialea.
- Punta-puntako gai monografikoak.
- Euskaraz eta Euskal Herrian sortua.
- 76 orrialde eskema eta argazki ugariz osaturik.
- Bibliografia, kronologia eta glosategia.

HARPIDETZAREN ABANTAILAK

- Urtean 8 liburu jaso, horietako bat dohainik.
- Liburu bakoitzak 950 pezeta.
- Ordainketa bi partetan egiteko aukera.
- Interesaturik egonez gero beheko txartela bete.

BESTE TITULUAK

1. Islam-a
2. Ekologia ala hil.
3. 1492: Amerikaren konkista.
4. Materiaren erdigunearen bila.
5. Arrazismoa beti bizirik.
6. Gazteak eta sexualitatea.
7. Gurutzadak eta tenplariak.
8. Lurraren ezkutuko historia.
9. Sorginak eta Euskal Herria.
10. Roboten mundu kezkarria.
11. Antzinako Egipton barrena.
12. Zenoikoaren ugaztunak.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-Abizenak

Helbidea


Herria Posta kodea Telf.

Banku/Aurrezki Kutxa

Sukurtsala Kontuaren zenbakia

Data Sinadura

GAIK ARGITALDARIA. San Bartolomé 36 - behea
2007 - DONOSTIA - (Tf.: 471304)



Argitaratzailea:

G.I.L.E.

Egileak:

Irakasle, guraso, sikologo,
pedagogo, eta beste.

Diseinugilea:

Irakasle Elkarte

Inprimaketa:

GERTU, S.Coop. Oñati

Fotokonposaketa:

Inke. Legazpi.

Dep. Leg.

S.S. 509/82
GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEAREN
ardurapean

Oharrak:

Idazlanak bidali nahi dituenak
jo beza helbide honetara:
Plz. Amezketa, 12 - 8. a F
Donostia
Tfnoa: 45 51 00

IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO ERITZIEN
ARDURADUN EGITEN

400 pta.

IKASTAROAK (1993)

• **SUGESTOPEDIA Ikastaroa.**

Irakaslea: Isabel MILLET.
Ikastaro hasiera: Urtarrila 13an
5etatik - 8etara Asteazkenero.
Ikastaro amaiera: Otsaila 24ean
Ordu kopurua: 18 ordu.
Matrikula: 10.000 pzta.

• **PSIKOMOTRIZITATEA. Arlo teorikoa.**

Irakaslea: Marian GOJENOLA.
Ikastaro hasiera: Otsaila 23an
6etatik - 8'30etara Asteartero.
Ikastaro amaiera: Maiatza 11n
Ordu kopurua: 32 ordu - 13 saio
Matrikula: 16.000 pzta.

• **0-3 urte bitarteko haurren garapena, Psikologikoki.**

3-6 urte bitarteko haurren garapena, Psikologikoki.

Irakaslea: M^e Jesus Uranga.
Ikastaro hasiera: Otsaila 5ean
6etatik - 8etara Ostiralero.
Ikastaro amaiera: Otsaila 26ean
Ordu kopurua: 8 ordu.
Matrikula: 3.200 pzta.

OHARRA:

**Ikastaro guztiak IKASBIDE ikastolan egingo dira.
Amezketarren Plaza. DONOSTIA.
Ikastaroen programa goiko helbidean aurki daiteke.
Talde kopurua mugatua da.**

ALDATZEKO DEN HITZARMEN POLITIKOA.....	31
IRAKASKUNTZAREN EGUNGO EGOERA	33
ITUN ESKOLARRA POSIBLE OTE?	35
LEGE PROIEKTUAREN ARGIAK ETA ITZALAK.....	37

TK 5888
OK-028/8

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO

1993 OTS 15

80526

ISILIK

Pedagogi aldizkaria, 14 1993

Eskola



eztabaidan

Argitaratzailea:

G.I.L.E.

Egileak:

Irakasle, guraso, sikologo,
pedagogo, eta beste.

Diseinugilea:

Irakasle Elkartea

Inprimaketa:

GERTU, S.Coop. Oñati

Fotokonposaketa:

Inke. Legazpi.

Dep. Leg.

S.S. 509/82

GIPUZKOAKO

IKASTOLETAKO

IRAKASLE

ELKARTEAren

ardurapean

Oharrak:

Idazlanak bidali nahi dituenak
jo beza helbide honetara:

Plz. Amezketan, 12 - 8. a F

Donostia

Tfnoa: 45 51 00

IRAKASLE ELKARTEA

EZ DA HEMEN

AZALDUTAKO ERITZIEN


ARDURADUN EGITEN

400 pta.



5888

OK-028/8



AURKIBIDEA

EDITORIALA	4
EAJ-PNV, PSE-PSOE ETA EE-REN ESKOLA ITUNERAKO HITZARMEN POLITIKOA	5
ESKOLA ITUNARI GURE EZETZA BOROBILA	9
MAHAI INGURUKO PARTAIDEEN INTERBENTZIOAK	12
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA	15
"ESCUELA PUBLICA VASCA" HONEKIN ERRESISTENTZIRA BERRIZ	17
BESTEREN KULTUR BALIABIDEEN KAPITALIZATZE OPTIMIZATZE EDO JABETZEA	25
EUSKAL ESKOLAZ ZENBAIT ABURU	27
ALDATZEKO DEN HITZARMEN POLITIKOA	31
IRAKASKUNTZAREN EGUNGO EGOERA	33
ITUN ESKOLARRA POSIBLE OTE?	35
LEGE PROIEKTUAREN ARGIAK ETA ITZALAK	37

Editoriala

Egon badaude egia osoak erdi egiak bilakatzen direnak eta horietako bat, adibidez “*irakasleok hezkuntz erreformatako benetako protagonistak ote garen*” da. Baieztapen horren testuingurua aztertuz gero, egia litzateke baina goazen ikustera egia erdi hori eta bere ondorioak laburki bederen.

Lehenik eta behin argitu beharko litzateke irakaslea ez dela irakasle aparteko grazia batez; titulua lortzeko formazio zehatz baten ondoren “*de jure*” izatera iristen delarik. Baina ikasketa bide honek bere baitan ebaluazio bikoitza adierazten du: batetik, teknikoa, irakasteko beharrezko duen jakinduriaren lorpena adierazten duena -teorian-; eta bestetik, bere baitan daramana, hots, irakaslearen lanbidearekiko egiten den balorazio soziala.

Eta profesionaltasunean huts-hutsik erreparatze horrek, irakasleak, hezkuntz sistemaren arduradun bilakatzen ditu; beraiek dira hezkuntzan funtzionatzen ez duen guztiaren errudun bakarrak, eta ia inoiz ez dira kontutan hartzen eskola-mekanismo zabal hori ibil arazteko egin behar izaten duten ahaleginez. Badirudi, greba egiten denean besterik ez garela gogoratzen irakasleez, hau da, beraien ausentziak ezinbestekotzat bilakatzen dituenen,...

Eta gizarte horrek bere kompetentziako arazoei soluziobiderik eskaini ez dionean, irakasleon esku utzi izan du edota uzten du sarritan erantzukizuna. Aipa dezagun “gizarte” hori: Lehenik, *familia* askotan, berari dagozkion eta betetzen ez dituen eginkizunen ardura eskatzen bait dio irakaslegoari; ondoren, *botere ekonomikoak* eta azkenik, *botere politiko eta Hezkuntz Administrazioa*, azken hauek baitira, azken finean, berrikuntza pedagogikoa egiazta dadin baliabideak ezarri behar dituztenak, kalitatezko Euskal Eskola Nazionala eta Publikoa guztion artean lor dezagun.

Baina, egun zer gertatzen da? Botere politiko eta Hezkuntz Administrazioaren artean *Akordio Politiko* batera iritsi dira, hots, irakaskuntzaz arduratzen den jendearen partaidetza oso murrizta (eza, ez esatearren) izanik, ondorioz, gaur egun dugun eskola sistemaren islada eta jarraipena besterik ez delarik.

Eta arazoak arazo Akordio hau eta beronen ondorioak ahalik eta zabalena aztertzen ahalegindu gara; horretarako alderdi guztiei euren iritzia eskatu diegu (nahiz eta modu desberdinez erantzun diguten, batzuk ahoz eta besteek, idatziz), sindikatu eta irakaskuntz munduan lanean diharduten zenbait laguni.

Ez gara hasiko guztiak banan-bana izendatzen, baina bai eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei euren aportazioengatik.

Azkenik, irakurle zaitugun horri; irakurri, aztertu; bakoitzari dagozkion eginbeharrez arduratu. Lanean hasteko garaia baita, akordio honek ezinezko egiten duen EUSKAL ESKOLA PUBLIKO ETA NAZIONALA guztion artean eraiki dezagun.

IRAKASLE ELKARTEA.



EAJ-PNV, PSE-PSOE eta EEren ESKOLA-ITUNERAKO HITZARMEN POLITIKOA

Aurtengo Udako Euskal Unibertsitatearen edizioan eta Pedagogi Sailak antolaturiko EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA aztergai zelarik alderdi politikoak gonbidatu ziren beraien iritzia jakin asmoz, baina, Herri Batasunako Tasio ERKIZIA eta PNVko Luis M. BANDRES besterik ez ziren agertu. PSOE bertan ez egotearen arrazoia, M. HUERTASEk adierazi zuenez; por cuestiones idiomáticas edota beste hitzetan, euskara hutsez zelako mahaingurua. EErekin mintzatu ondoren bere presentziaren ezintasuna adierazi ziguten opor garaia zelako. EUE alderdiak aldiz, bere ezintasuna adierazi ondoren txostena bidali zuen. EAren jarrera arras bestaldekoa izanik, hots, bezperan ere beraien partaidetza ziurtatuz jarraitzen bazuten ere iritsitako unean ez zen inor agertu. PP eta UA alderdien erantzuna aldiz, oraindik jasotzeke dugu.

LUIS M. BANDRES

1. Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 16. atalak honako hau dio: "Konstituzioaren Lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149-1-30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektzioari kalterik egiteke"

1979. urtean Estatutuaren agindu hori onartu zenetik, Euskadiren berezko beharrei erantzungo dien euskal hezkuntza-sistema egituratzeko gogo-asmoa nabaria izan da gure gizartean.

2. Dena den, eginkizun hori ezin zitekeen bapatean egin, alde aurretik zenbait urrats finkatu behar bait ziren.

Lehenengo eta behin, Konstituzioaren aginduei egokitu behar zitzaion Konstituzioaren aurretiko hezkuntza-sistema.

Egokitzapen hori ez zen bete-betean osatu 1990. urtean hezkuntza-sistema antolatzeko Lege Organikoa (LOGSE) onartu arte. Lege horrek 1985.ean eman bait zion amaiera, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren (LODE) onarpenarekin hasitako bideari.

Bigarrenik, Euskadiko lurralde-eremuan zehaztu beharra zegoen zein aginte-politikori zegokion euskal hezkuntza-sistema egokitzeko ardura. Galdera horri erantzuteko, azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomi Elkarte osorako erakundearen eta bere Lurralde Historikoetako foru-organoen



arteko harremanei buruzkoa onartu zen, arlo honen inguruko aginpideak Elkarte osorako erakundeei, hau da, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari aitortu zitzaizkiela.

Hirugarrenik, Estatutuaren 16. atalean jasotako aginpideen irispidea zehaztu behar zen, hezkuntza-arloan edo, hobeki esan, Estatuak eta Autonomi Elkarteak gai honen inguruko aginpideak banatzerakoan ez bait dute beti bakean jardun.

1981. urteaz geroztik, arlo honetako auziak, beste konponbiderik ezean, Konstituzio-Auzitegiak erabaki behar izan ditu behin baino gehiagotan. Azken hiru urteotan, halere, hezkuntza-arloan, adostasunerako konponbideak ageri dira, administrazioen jarrerak elkarri hurbiltzeko bide ematen duen oinarritzko esparrua osatzeko lagungarri izan direnak hain zuzen.

3. Guzti hori horrela, Autonomi Estatutua onartu zenetik gaurdaino, Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-ekimenak ondoko gaiak landu ditu nagusiki: Estatuak Autonomi Elkarteari hezkuntza-arloan eskualdatutako gauzako eta giza baliabideez jabetzea; herri-ikastetxeetan kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko baliabide nahikorik izendatzea eta, helburu bera gidari, hemengo ikastetxe pribatuek Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren jardute-esparrukoek dutena baino dexente gehiagoko diru-kopurua jasotzea ekarri duen hitzarmen-sistema ezartzea; hezkuntza-ereduak ezarriz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren normalizazioa eta, ekainaren 29ko 10/1988 Legeak, ikastolak eta Herri-Eskola bateratzekoak dioenari jarraiki, ikastolei sare publikoko eskolei besteko diru-kopurua ematea.

Dena den, Hezkuntza-Administrazioak Autonomi Elkartean egindakoa ez da denera iritsi. Hezkuntza-sistemaren aniztasuna eta etengabeko adostasun-eza kontutan, legealdi bakoitzeko hezkuntza-politikak gai jakin bati heldu izan dio, unean-unean lehentasunezkatzat jotako arazoak argituz; baina egindakoak ez du euskal hezkuntza-sistemaren egitura zehazteko erabateko irtenbiderik eman.

PSE-PSOE eta EAJ-PNVren arteko Koalizio-Gobernuaren legealdia amaitu zenean erabaki gabe geratu zen euskal hezkuntza-sistemaren egituraketa, politika-eta gizarte-mailako eztabaidan luze-zabal jardun zen arren. Ezinbestekoa zen, beraz, EAJ-PNV, PSE-PSOE eta EEK legealdi honetarako izenpetutako Koalizio-Itunean hezkuntza-politikaren arloan adostasunera iristeko ardura hartzea beren gain, sistemaren benetako aldaketa kualitatiboa ekarriko lukeen hezkuntza-politika hain zuzen.

4. Hezkuntza-arloko adostasuna premiazkoa eta ezinbestekoa da, gatazka etengabekoa bait da. Iritzi publikoaren arabera, badirudi hiru sare egoteak eta bakoitzak bere egitura eta lege-zein administrazio-izaera edukitzeak edozein hezkuntza-politikaren helburuetako lehentasunak ezartzen dituela. Halere, Itunaren izenpetzaileak bat datoz Hezkuntza-Sistemak gaur egun duen arazo bakarra ez datzala ikastolen egoeran; arazoak badu bere garrantzia, baina ez beste askok baino gehiago. Besteak beste, hona hemen arazorik nagusienak:

I.- Finantziaketari dagokionez, Itun honek aurre egin beharreko egoeran ondoko arazoak dira nagusi:

Lehenik, egungo hezkuntza-sisteman kostuaren zatirik handiena irakasleen ordainsariekin hartzen dute, eta horietan

igotzeko joera somatzen da elkarri loturiko bi prozesu ageri direla; alde batetik, sare publikoko irakasleek Administrazio Orokorreko langileekin parekatu nahi dute, eta sare pribatukoek, berriz, publikoekin. Egoera hori izanda, behar-beharrezkoa da prozesu horiek dirutan zehaztu eta antolatzekeo abiapuntua zein izango den zehaztea.

Bigarrenik, irakaskuntza pribatuaren finantzaketa etengabe eztabaidatu izan da urte horietan denetan, funtsean hiru arazo izan direla: behar besteko finantzaketa ekarriko luketen moduloen zehaztapena; sare pribatuko irakasleen ordainsarien ordainketa delegaturako mekanismoaren ezarpena; eta, sare pribatuaren finantzaketa derrigorrezko irakaskuntzaren haraindikoa izatea ala ez.

Aipatutako arazo guztiok bat eta bakarrera bil daitezke. Hezkuntza-sistemaren kostua zehaztu beharra dago. Jakina, hori beti da beharrezkoa, baina are gehiago Maastrichteko itunek ezartzen duten ekonomi bateratzearen esparruan.

II.- Hezkuntza-sistemaren baliabideak ahalik eta hobeto eta modurik arrazoizkoenean erabiltzeko behar bezala planifikatu behar da ikaspostuen banaketa. Zehaztu beharra dago alde aurretik zeintzuk izan behar duten hezkuntza-sistema berriro antolatzekeo irizpideak. LOGSEK ikastetxeen tipologia aldatzea dakar, eta era berean, derrigorrezko irakaskuntza luzatu egingo denez, ikasleak ere beste era batera banatuko dira. Bestalde, jaiotza-tasa jaitsi izanak eskola-unitateen kopurua murriztea eskatzen du. Eta arazo horiek, berez korapilatsuak izanda, aspaldidanik sare publikoaren eta pribatuaren arteko gatazka nagusi duen sistemaren barruan konpondu behar dira.

III.- Bestalde, curriculum-garapena, helburuak, edukiak, pedagogi metodoak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dituen, hezkuntza-erreformaren alderdi nagusienetako bat da, baina zehazteke dago oraindik ere. LOGSEK curriculum-ak egituratzeko prozedura mailakatua ezarri du; lehenengo muga Hezkuntza Ministeritzak Estatu osorako ezartzen duen gutxienekoa izanik. Autonomi Elkartean beste bi finkatu behar dira: ikastetxe guztientzako curriculum-garapena, Hezkuntza Sailak ezarriko duena, eta aipaturiko garapenaren azken





osagarri gisa, ikastetxe bakoitzari, bere autonomia erabiliz, dagokiona. Gai honek kultura-eta hizkuntza-aukerek duen lotura kontutan, hitzarmen hau izenpetzen duten alderdiak bat datoz, prestakuntza-prozesuan zer den orokorra eta zer berezia zehazteko irizpideak ados jarrita erabaki behar direla, gai honek sistemaren barruan beste auzi bat sor ez dezan.

IV.- Gobernu-Itunean argi eta garbi ageri da hizkuntza-politika zuzena, gizartearen egoerari egokituko zaiona egiteko adostasuna behar dela. Hizkuntza-politika honek, era berean, gizartearen beldurrak eta egindako akatsak, halakorik izatekotan, gainditu eta, euskal herritarrek askatasun osoz eta beren borondatez aldeko jarrera erakutsiz, hizkuntzaren berreskurapena eta benetako nahiz egiazko elebitasuna lortu behar ditu. Horrek eragin zuzena du hezkuntza-sisteman.

Autonomi Elkarte honetan gaztelera eta euskara koofizialak direnez, denek onartzen dute hezkuntza-sistemak bi hizkuntza ofizialen ezagupena bermatu behar diela ikasle guztiei beren ikasketak amaitzen dituztenerako. Hori horrela bada ere, helburu hori lortzeko behar diren baliabideen inguruko eztabaidak bizirik dirau.

V.- Jakin badakigu, irakaskuntza publikoaren kalitateak ez duela hobera egingo bere zerbitzuen egitura aldatzen ez den bitartean. Eskola-ereduaren akatsik nagusiena erabaki guztiak zentralizatzea da, orain arte hezkuntza-administrazioaren antolaketa zurruna eta goitik beherakoa izan da eta. Horrek, neurri handi batean, ikastetxeen jardura bizkorragoa eta eraginkorragoa izatea galerazi du. Bestalde, zenbait taldek ikastetxeetan parte hartzeko moduak malguagoak izan daitezela eskatu izan dute.

Bi arazook konpondu egingo dira ikastetxeentzako autonomi esparrua zehazten bada, hots, beren hezkuntza-egitasmoa, antolaketa eta izendatutako baliabideei eman beharreko erabilera erabakitzeak aukera emango dien esparrua.

VI.- Eskola publikoaren bilakaerak berez du garrantzia, eta are gehiago ikastolen bateratze-prozesua burutzea bere baitan dagoenez gero. Behin-behinekotzat jo izan den sistema berezi

batean oinarrituta, ikastolak hirugarren sarean sartu izan dira, eta horrek ikastetxe publiko ala pribatu diren zalantzatan egotea eta finantzaketa berezia izatea ekarri du.

Bateratze-prozesuak bi alde ditu. Batetik, Eskola Publikoak bilakaeraren aldeko apostua egiten du, ikastolek, bere berezitasunari uko egin gabe, sarbiderik izango duten esparrua sortuz. Bestetik ikastolek Eskola Publikoarekin bateratzeko nahia agertu zuten esparrua egituratu ondoren. Beraz, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legerako eta bertan eman daitezen aginduak osatzeko arauetarako adierazpen-era egokia aurkitu beharra dago, kontutan izanda beti ere, lehen bi sareetan zeuden ikastetxe eta langileei, sistema publiko berrian sartzerakoan, erabateko eta berdintasunezko bateratzea eskaini beharko diela lege horretan zehaztutakoak.

VII.- Azkenik, Euskal Irakaslegoaren Funtzio Publikoa arautu behar da, euskal irakasleak Euskal Eskola Publikoa Legeak garatuko duen eskola-egoera berrira egokitzeko prozesuari ekinez, eta egun aldibaterako langileek betetzen dituzten irakaspostuen behin-behinekotasuna gaindituz. Bestalde, zenbait urtetik hona irakasle asko eta askok ezin izan du lekualdatze-lehiaketetan parte hartu.

5. Arazo guzti horiei irtenbiderik eman nahian, Gobernua osatu zen une beretik sistema normalizatzen lagunduko luketen adostasunerako bideak urratu izan dira. Adierazitako gaietan lortu da adostasunik. Hona hemen alderdirik garrantzitsuenak:

I.- Sistemaren finantzaketari dagokionez, langileen ahalegina eta gaitasuna eskatu eta neurri berean sarituko lituzkeen kalitatezko sistemaren kostua zehaztu da. Erabaki da, halaber, moduloak gehiagotzeko eta irakaskuntza pribatua urte gehiagoz, 3-16 urte bitartean, zeharo dohainik izateko

erabiliko den zenbatekoa, Lanbide Heziketarako ahalegin berezia eginez. Guzti horren kostua batu, epeka jarri eta Europarekiko baterakuntzak ezartzen dituen aurrekontu-muga estuetan sartu da.

Finantzaketari buruzko erabakiarekin batera, herri-dirua zorrotz zainduko da ordainketa delegatuaren bitartez.

II.- Hezkuntza-sistemaren plangintzari dagokionez, sareek orain duten orekari eustea eta plangintza partehartzailearen eskema abian jartzeko balio izango duten irizpide orokorrak ezartzea erabaki da. Guzti horrek sistemaren egonkortasuna eta irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren arteko arazoa konpontzea ekarriko du, laguntza handikoa izanik hezkuntza-sistemaren baketze-bidean.

III.- Curriculum-egituraketan inguruan, zenbait irizpide eta mekanismo ezarri dira denetzako izango dena finkatzeko eta ikastetxe bakoitzean hartutako prestakuntzaren parekotasuna eta elkartrukea bermatzeko. Halaber, ikastetxe bakoitzak curriculum-egituraketan duen jardute-esparrua zehazteko nahiz hezkuntza gertueneko errealitateari -euskal historia eta kultura kontutan dituenari- lotuko zaiola ziurtatzeko balio izango dute irizpide eta mekanismook.

IV.- Indarrean dauden hizkuntza-ereduetan oinarrituta, hauen ezarpena arautzeko irizpideak adostasunez finkatu dira. Bestalde, kasuan kasu ezarri beharreko hizkuntza-eskakizunen eta hauen derrigortasunaren bitartez, Administrazioak irakasleak euskalduntzeko bere gain hartu behar duen zeregina zehaztu da, eredu bakoitzaren helburuak lortu asmoz.

V.- Eskola Publikoaren egituraren eta jardueraren egin diren aldaketek argi eta garbi erakusten dute autonomia behar dela ikastetxeen nortasuna sustatu eta hezkuntza-komunitatearen erantzukizun-maila handiagoa erdiesteko, guztiori irakaskuntzaren kalitatearen onerako izango baita.

VI.- Ikastolen bateratze-prozesuari dagokionez, hezkuntza-sistema bi saretan, publikoan eta pribatuan, eta horietan baino ez banatzeko baldintzak jarri direla esan daiteke. Honekin amaitu egiten da gaur arte bizitako behin-behinekotasun egoera, eta buru eman bere garaian egituratutako bateratze-prozesuari.

VII.- Irakaslegoaren Funtzio Publikoaren arloan lortutako adostasunak konpondu egiten du, gure ustez, langileek jasan izan duten behin-behinekotasun eta zalantza-egoera. Gainera funtzio publikoaren esparruan eredugarri den irtenbidea ematen dio, Autonomi Elkartearen berezko kidego-sistema ezarriz. Kidego-sistema horretan irakasleen etengabeko prestakuntza eta horien lanbide- eta gizarte-sustapenerako estimulak antolaketa horren giltzarri bilakatzen dira, hezkuntza-administrazio guztientzako bera den eskemari jarraiki; honek, herri-administrazio guztietako funtzionarioen iragazkortasun eta mugikortasun-eskubideak gauzatzeko bide ematen duelarik.



Erantsitako agirietan erabaki politikoaren edukia dago jasota, gizartearen arlo guztiek eta, bereziki, hezkuntza-komunitateak beren ekarpenen bidez osa dezaten. Denon artean egindako eta ukitutako talde guztietara zabaldu nahi litzatekeen erabakian oinarrituta, politika- eta gizarte-mailako Eskola-Ituna lortzea da prozesu honen azken helburua.

LABURBILDUZ;

Eta azalpen hori egin ondoren, beronen defentsa egiten ahalegindu zen, mintzaldi guztia lau puntu nagusienetan oinarritu zelarik, hots; *sistemaren finantziaketan, planifikazioan, curriculumean eta hizkuntz politikan.*

Sistemaren finantziaketari dagokionez, *homologatua* izan behar duela zioen, bai irakasle publiko zein pribatuetakoentzat ere, eta homologazio honek arazoak sortzen dizkiela dirua banatzerakoan.

Planifikazioaz aldiz zera zioen: erreforma dela medio 16 urte bitarte luzatuko zirela zikloak baina, haur jaiotze kopurua gutxituz doanez honen eragina nabaritzen hasia dela planifikazio garaian ere.

Curriculumaren arloan berriz, datu zehatzak eman zituen: % 45a Elkarte Autonomoak aukeratzen omen; eta kopuru horren %50 euskara eta euskal kulturari omen dagokio; eta % 15a aldiz, ikastetxe bakoitzaren baitan datzala curriculum-planifikazioaren *nolakotasuna* erabakitzea. Puntu honetara eta irakaslegoaren kontrataziora iritsitakoan entzulegoak bere haserrea agertu zuen, hots, **EAJ-k autonomia gutxirekin jokatu izana eta beti Madrilen menpekotasuna agertu izana, besteak beste.**

Hizkuntz politikari dagokionez: A, B eta D ereduak defendatuz gainera, irakasleen euskalduntzearen prestaketaz bi profil aurkeztu zituen; bata, 1250 orduko prestaketa dituen eta besteak, 2.000 ordu lituzkeena. Ondoren ere, eztabaida bizia sortu zen jendearen ezadostasuna agertu zelarik.



Eskola Itunari gure ezetza borobila

Azken hamarkadetan, Euskal Herriko giza talde zabala izan da Euskal Hezkuntz Sistema Propio baten alde, Eskola Nazionalaren bidean lanean diharduena. Ahalegin eta ekimen bereziak izan dute eragina egungo irakaskuntza eta eskola ereduaren garapenean, nahiz eta neurri berean ez diren aintzat hartuak izan Administrazioaren egitasmoan. Onarpen eta aipamena merezi dute ikastoletatik eta eskola transferituko hainbat sektoretatik, Eskola Publiko Berri baten alde egin diren eginahalak, egokitze ekimenak eta aldarrikapenak.

Orohar Administrazioaren jarrera atzetik joan da eta zenbaitetan aldakuntza eta berrikuntzaren galdotze papera jokatu izan du.

Hainbat urtez irakaskuntza sektore desberdinetatik etorkizunerako erreibindikatu den Euskal Eskola Publiko Berri hori ez da orain ere gauzatuko, PNV-PSOEren interes partidistak eta antieuskaldunak direla medio.

Alderdi hauek burutu duten akordio politikoa eta ondorioz gauzatu nahi diren Eskola Publikoaren eta Irakaslego kidegoaren legeak HBren ustez onartezinak dira eta eman nahi diguten atzerapauso nabarmenaren islada ditugu.

TASIO ERKIZIA

1.-GIZA EZTABAIDA ETA AKORDIOARI ATEAK ITXI ZAIZKIO

PNV-PSOEren arteko itun politikoa itxia jaio da; giza sektorei ez zaie benetako protagonistak bihur daitezen aukerarik eskaini. Ituna alderdi interesetara mugatu den tratu politikoa da. PSOEren nahietara makurtu da PNV. Batetik eskola pribatuaren finantziaketa hobetzearen konpromezuz, eta bestetik, eskola publikoari estatuko eredia ezartzen zaio, ikastolak integrazioa behartzen dira eta euskalduntzeari bideak ixten zaizkio.

2.-ESKOLA ITUNAK ESPRESKI EZABATZEN DU ESKOLAREN IZAERA PUBLIKOARI DAGOKION EZINBESTEKO BIRDEFINIZIOA

Publiko izaera Administrazioarenarekin identifikatzean

eredu zentralista eta erabakarrekoa ezartzera dator.

Ez da zuzena Publiko kontzeptua Administrazioaren zuzendaritza eta kontrolpean dagoenarekin berdintzea. "Publikotasun" hitzaren barruan, jabetatik at, Eskolaren izaera bera jokoan aurkitzen da. Publikotasuna, Administrazioaz gain gizarte zibilarekin eta herritartasunarekin estuki loturik dagoen kontzeptua da.

Eztabaidan dagoen PNV-PSOEren proiektuan Administrazioak beregain hartzen ditu ahalmen juridiko guztiak, kanpoko erakunde, zerbitzu eta pertsonen partaidetza eta erabakigarritasuna maila testimonialetara mugatuaz.

3.-AUTONOMIA EDUKIRIK GABEKO HITZA BILAKATZEN DA

Autonomia erabakiak hartzeko gaitasunaren ondorioa da. Zaila gertatuko zaigu eskolak autonomia izan dezan, orojabe-



tasuna eta erabakikortasuna Administrazioaren esku badago, Autonomia gestio ekonomikoan, maila pedagogikoan edo giza baliabideen gestioan eskolak izan dezan, eskumenen onarpen juridikoa eskatzen du. Lagapen soila testimoniala da zer erabaki, zertan erabaki eta nola erabakirik ez baldin badu eskolak.

4.-EUSKALDUNTZE PROZESUAN ATZERAKADA NABARIA.

Ez da nahiko esatea: "Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntzaldia bukatzean bi hizkuntz ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea euskararen erabilera bultzatuz eta normalizazioa lagunduz".



Ondoren horretarako gai ez diren ereduak aplikatzen badira edota, irakaslearen euskalduntzea bermatzen ez baldin bada, edota baliabideak eta bitartekoak ukatzen baldin badira aurreko baieztapen guztiek porrot egingo dute, orain arteko zenbait praktikak porrot egin duen bezala. Helburua gizarte elebidun edo eleaniztuna baldin bada, horrek Eskola euskalduna eskatzen du ezinbestean.

5.-IRAKASLEGOAREKIKO PROIEKTUA ESTATUKO KIDEGOAREKIKO DUEN LOTURA SENDOTZERA DATOR.

Irakaslego Propioa ez da urrundik ere aintzakotzat hartzen, Funtzionarizatzea da, irakaslegoari eskaintzen zaion aukera bakarra; lan kontratupeko irakaslearen irudia ukatu egiten du; gorputz eta eskalak gehitzen dira; desberdintasunak areagotuz. Guzti horren ondorioz, burokratizazio arriskua begibistakoa delarik.

6.-KONFLUENTZIA UKATU ETA INTEGRAZIOA INPOSATZEN DA.

PNV-PSOEren obsesioa "normalizazioa" da. Hau da, Euskal Herriko hezkuntz eredu, estatukora homologatzea.

Irakaskuntzak hemen izan duen garapen propioak eta berezituak neurri horretako tratamendua eskatuko luke; eredu Berri bat ikastolak eta egungo eskola transferituak bere baitan bilduko lituzkeena.

Ez da horretarako proiekturik, eskola transferituei legea ezarriko zaie eta bertako sektore euskaltzale eta aurrerazaleei eskola berritzeko duten borondatea eta asmoa eragotziz, ikastolak berriz txantaiaren bidez, integrazera behartu nahi dira.

GURE MEZUAREN ARDATZAK

GURE HELBURUA: EUSKAL ESKOLA NAZIONALA

Euskal Eskola Publiko Berri bat proposatzen dugu berehalako helburu gisa Eskola Nazionalaren bidean. Ideia zentral honen baitan kokatzen da Herri Batasunak P.N.V.-P.S.O.E.ren proiektuari egiten dion gaitzespena. Gure norabidea ikuspuntu partzial, pertsonal, interesatu edo korporatibistatik at eraiki behar dugu; gertukoak lausotu ez dezan helmuga.

“PUBLIKO-PRIBATU” EZTABAIDA FALTSUTIK IHES EGIN

P.N.V.-P.S.O.E.k binomio honetara mugatu nahi lukete eskola, ikastola eta gizarte mailako eztabaida eta erabakien konplexutasuna. Herri Batasunak eztabaida beste parametrotan kokatu behar du, noski, publikotasuna ahaztu gabe: Euskal Eskola Publiko Berria, euskalduntasuna, zertan datza partaidetza?, Irakasle Propioa, Autonomia, e.a.

Ezin dugu Eskola proiekturik ontzat eman aurrez baldintza erabakikorak bermatzen ez baditu.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRI BATEN ALDEKO APOSTUAK ZUTIK DIRAU

Ez da auzia galdutzat eman eta etsipenean erortzeko unea. Faltsua da P.N.V.-P.S.O.E.k azken aukeraren aurrean gaudela sinistarazi nahi digutena.

Eskola ikastoletan, irakasle, guraso eta herritarren artean Euskal Eskola Publiko Berriaren alde apustu egiteko garaia da. Apustu hau ez da koiunturala. Etorkizunean ere apustu bera izan beharko dugu eskuartean.

Borroka horretan ez gara bakarrak izango. Herri mugimendu gisa antolatu eta lanean diharduen SORTZEN hor dugu lekuko. Helburu beraren alde sor daitezkeen ekimenetan konpromezura dei egiten dugu.


INTEGRAZIORIK EZ

P.N.V.-P.S.O.E.ren eskola proiektuari atxikitzen dizkiogun hutsune estrategikoak bere horretan jarraitzen diren bitartean onartezina da ikastolei proposatzen zaien integrazioa.

Ikastolen borondatezko integrazioak ia ezinezkoak gertatzen dira.

Integrazioak irakaskuntzaren zauria faltsuan itxiko luke eta ondorioz, amaitutzat eman auzia. Euskal Herriko azken hamarkadetako irakaskuntza bilakaerak irtenbide duina eskatzen du.

P.N.V.-REN ASMOAK EZ DIRA GARBIAK IKASTOLEN KONFEDERAZIOAREKIN DITUEN ELKARRIZKETETAN



P.S.O.E.k jartzen dizkion mugak gainditzeko, P.N.V.-k borondaterik eta ahalmen politikorik ez duen susmoak ditugu eta P.N.V. eta Konfederazioaren arteko harremanetan horren beldur gara.

Ondorio garbirik aurrikusten ez zaien negoziaketetan murgildurik P.N.V.-P.S.O.E.ren proiektuen aurrean pasibitatea eta barealdia ekarri dute.

P.N.V.-P.S.O.E.ren azken helburua ez ote da ikastolak sare bietan sakabanatzea, horretarako negoziaketa faltsutan nahastea, bide batez ixiltasuna esijitzea eta giza eztabaida eta kale gatazka eragozteak?

ATZERAPASORIK EZ EGUNGO ESKOLA TRANSFERITUETAN

PNV-PSOEren jarrera likidazionistak ezin du euskalduntze prozesuan, guraso zein irakasleei esker, erdietsitako lorpenak deuseztatu.

Boteretik burokratizazioa eta geldotasuna bultzatzen dutenei aurre egiteko, inplikaturiko sektoreak eta gizartea orohar animatzen ditugu kalitatezko eskola eredu berriaren bidean eragin beharreko aldaketan protagonista aktiboak izan daitezzen.

IKASTOLEK JARRERA AMANKOMUNEI EUTSI BEHAR DIE.

Ez da oraindik behin betirako erabakia hartzeko garaia. Ikastolek proiektuaren biabilitate eta irtenbide bateratua esijitu behar dute. Bakarkako irtenbideak edo zatikatuak mesede kaskarra lekarkioke proiektu nazionalari. Onartezina litzateke talde gisa Ikastolen geroa bermatuko ez lukeen eskaintza.



Mahai-inguruko partaideen interbentzioak

T. ERKIZIA.- Administrazioak euskarari buruzko gutxiengo helburu batzu jarri behar ditu, mugak eta helburu zehatzak. Gero horren prozesoa nola garatu? Jakin badakigu leku guztietan muga berbera ez daitekeela ezarri baina helburu minimoak bai. Jendeari euskalduntzeko aukera eskaini behar zaiola iruditzen zait. Eta nik uste dut, une honetan eta historiaren fase honetan eskolek izugarritzko eginkizuna dutela euskararen berreskurapenean, berreskuratu motibatuz, hots, neska-mutilek euskara menperatuz.

Irakaskuntzan beraz, homogeneitatean erortzea baino nahiago dut nola baiteko "aniztasuna"; zeren eta gizarte dinamika batetan ezinbestekoa baita autonomia hori. Azken finean, eskola bateko ondorioa entresa baten produktioarekin pareka daiteke, hau da, oso loturik daudelako motibazioarekin. Erakunde bakoitzeko sektore guztia ez baldin badago motibaturik alfer alferrik izango dira hor ezartzen diren baliabide guztiak (psikologoak, laguntzaileak, e.a.) motibazioa ezinbestekoa delako dinamika bat sor dadin aurreratu ahal izateko.

Orduan, lehentasuna zeri ematen zaionaren arabera izango da eta horren baitakoa, eskola prozesuan kalitatezko eskola. Beraz, ezinbestekoa izango da, gurasoek eskolarekiko agertzen duten motibazioa; izugarritzko eragina bait du gurasoek eskolarekin eduki dezaketenen harreman egokiak; eta hori mozten baldin badugu mugatzen ari gara eskolaren posibilitatea. Beraz, oreka horren barnean azpimarratu nahi dut *autonomiaren garrantzia*, hain zuzen ere, motibazioaren oinarria delako autonomia.

L.M. BANDRES.- Ni ados nago esan duzunarekin, baina ez dut ulertzen orduan, zertarako publikatu behar

den. Ongi dagoena beraz, zertarako sartu behar dugu bide arriskugarritan? Hori da nere ustez sakonki aztertu beharko genukeena. Zeren eta guztiok ongi bait dakigu duela hamar urte edo, marxismo kutsu hartan, *publikoa* zen guztiak bazuela nolabaiteko dizdira, eta "progreen kultura" horretan, denak *publikoa* izan behar zuela, hots, *administrazioarena eta zentralizatua ahal zelarik*. Eta garai hartan bizi ginez, behin baino gehiagotan defenditu izan dugu jarrera hori eta hori egia da, eta aitortu egin behar dut. Eta garai horretakoa da (1987ko abendua) Ikastolen konfederazioak sinatu zuen publikazioaren aldeko txostena, hau da publikazioa garai hartan ulertzen zen moduan, hots, *administrazioarena, zentralizaturik eta denok funtzionarioak*.

Geroztik zer gertatu da? Marxismoa pikutara joan dela, eta ez dela izango "progrea" dena zentralizatzea, ...e.a. Eta orain ezin dugu ukatu sinatu ez genuenik.

Jaun andreok, taxi guztiek daramate atzekaldean "S.P.", baina pribatuak dira nahiz eta "zerbitzu publikoa" egiten duten. Era berean, ikastola edota ikastetxe batek nahi baldin badu bere nortasuna behar den bezala gordetzea, gurasoek parte hartzea, eta abar, ... pribatu izaten jarraitu behar du eta kitto, eta ez publikatu; ez dezagun mitifikatu "*publiko*" hitz borobila. Zeren, *publikoa* leku guztietan eta historian zehar *administrazioarena* izan bait da. Eta ez dezagun gure bururik engaina orain esanez: ez, ez, nik publikoa esatean "nortasun juridikoaz" ari naiz. Ezta baida nere iritziz horretan datza.

Aipatu nahi nuen beste puntua *irakaslegoari* zegokiona zen.

LOGSE indarrean jarri zenean eta hiru urteko epean irakaslegoa funtzionario bilakatzeko aukera eskaintzen zuen puntu bat zegoen (oker ez banago

datorren urteko urrian amaitzen da). Beraz, guzti hau kontutan izanik maiatzaren bukaera baino lehenago jakin beharko dugu zein ikastolak publikatu beharko duen bertako irakaslegoaren egoera aztertu eta gero urria baino lehen frogak ezartzeko, edota bestela, betirako galdu dute okasioa; eta gure iritziz, horrelako zerbait egitea herriaren zati bati, benetan traizioa izango litzateke, eta alderdi bezala onartezina.

ZEIN DA IKASTETXE PRIBATUEK EUSKALDUNTZEAZ DUTEN EGOERA?

L.M. BANDRES.- Egoera oso bestelakoa da pribatuetan euskalduntzeari dagokionez, ikastoletan baino askoz okerragoa jakina. Diru partida berezi bat ezarri dugu aurten IRALE programa bultzatzeko eta horrela, irakaslegoa euskalduntzeko aitzakiarik egon ez dadin. Baina zer gertatzen da? Denbora aldetik euskalduntzeko epe luzeagora ikusten dugula, egoera desberdin batetik abiatzen direlako. Nahiz eta diru-kopurua zehazteke egon, gure artean egindako zifrak dira, gero Legebiltzarretik pasako direnak, alegia. Bai ikastetxe pribatu eta baita ikastetxe publikoetako irakaslegoarentzat izango da.

T. ERKIZIA.- Ikastetxe pribatuei buruzko plangintzarik ez dut ikusten administrazioaren aldetik; ez dute eperik prozesua burutzeko eta ezta ere ez zaie eskatzen helbururik bete dutez.

L.M. BANDRES.- Hori horrela da. Bi gauza desberdin bait dira, irakas-



legoaren euskalduntzea batetik, eta eredu-
duen hautaketa eta lorpenak, bestetik.
Beraz, irakaslegoa euskalduntzeko
izango dira diru-partidak baina, era
berean helburuak bete egin beharko
dituzte, bestela, akordioa pikutara doa.

T. ERKIZIA- Nere ustez helbu-
ruetan ez da zehazten ez irakaslegoa
euskalduntzeko zein izango den plan-
gintza eta ezta ere ikaslegoa euskal-
duntzeko eramango duten prozesurik.
Zeren eta, bertan agertzen dena da; hor
dituzue eredu batzuk beren helburue-
kin, baina ez da esaten adibidez; zein
portzentaiatan sartu behar duten ikasle-
ak aipatu eredu horietan. Beraz, plan-
gintza horren arabera hemendik hamar
urtetara ere orain bezalatsu erdalduna
izanez jarrai gaitezke.

L.M. BANDRES- Ez nago ados.
Gauza bat dira ereduak eta beste gauza
bat helburuak betetzen direnentz.
Administrazioaren betebeharrak izango

da hautatzen duten ereduaren arabera
helburuak esijitzea. Eta beste gauza des-
berdina *nola* betetzen dituzten helburu
horiek. Orduan, helburu horiek lortzeko
irakasle batzu euskaldunak izan behar-
ko dute, baina horrek ez du esan nahi
hasieran behintzat, irakasle guztiak
euskalduna izan behar duenik.

Bestalde, ez dut ulertzen hemen
esaten dena, hots, PSOEn legea dela
eta era berean ikastetxe pribatuen alde-
ko legea dela. Badakit EAJ-k nahi zuen
legea ez dela baina hemen denak amore
eman behar izan dugu. Baita ere aipatu
nahi nuke ez dela Madrilekoaren kalko
hutsa, hau da, autonomoari dagokionez,
legearen bostgarren atal osoa hori gure-
gurea da. Hori lortu ahal izateko izan
dugu borrokarik handiena sozialistekin
esate baterako.

Orain arte jasotako iritzien
artean, (parlamentukoak batez ere) ba-
tzentzat autonomia gehiegi zegoen eta
beste batzuentzat aldiz, guttiegi.
Horregatik iruditzen zaigu ez gabiltzala

hain gaizki erdibidetik baldin bagoaz.

Dena den guri gustatuko litzaiuke-
ena askoz ere gehiago litzatekeen arren,
oraingoz esku artean daukagun mate-
riarekin jokatu beharko dugu, zoritxa-
rez.

ZERGATIK EZ DA MAGISTERITZA EUSKARA HUTSEZ IRAKASTEN?

L. M. BANDRES- Guztiok daki-
gun bezala, oso zaila da unibertsitatean
martxan dagoen espezialitate bat ken-
tzea. Hori Unibertsitateak erabaki
beharko du, bere autonomian, eta behar
bada beste titulu berri batzuek edo,...

ZER DIOZU A EREDUAREN PORROTAZ?

L.M. BANDRES- Nik uste dut
hori sakonki aztertu beharrekoa dela.
Baina errua nolabait esateko, kasu
askotan bederen, irakaslearena dela iru-
ditzten zait. A ereduko euskarazko ira-
kasleek (ez dut beti esaten,
baina, "Maria" delako, edota, "Maria"
bezala jartzen dutelako) ez diote
garrantziarik ematen.

BAIEZTAPEN HORI ONARTEZINA DELA IRUDITZEN ZAIGU

L.M. BANDRES- Ikus dezagun
zenbat ordu ematen dituen gazte bat
bere irakaskuntza osoan euskaraz ikas-
ten eta ordu piloa ateratzen zaigu. Eta
zer dela eta ikasten dute ingelesa ale-
manian ordu eta sistema bertsuan? Ale-
man guztiak ingelesez hitzegiten buka-
tzen bait dute.

Nik ez dut esan nahi erru osoa ira-
kaslegoarena denik, baina bai hein
handi batean. Kontutan hartu behar
dugu gizarteak ere ez duela laguntzen
eta horrekin beste hainbat faktore;
metodologia, ... Adib.; Askotan euska-
razko A ereduko klase batetara sartuko
bagina denbora galtze handia dagoela
ikusiko genuke, zeren eta, irakasle
askoren jarrera honoko hau bait da

"ume hauekin ezinezkoa denez irakastea, bada, nola edo hala denbora pasa dezagun" eta nik hori entzun egin dut. Eta irakaslearen aurreiritzia hori baldin bada, jai dago!. Haur hauek ez dute sekula santan ikasiko.

BAINA, A EREDUAREN PORROTA NABARIA DA; BERE HELBURUA EZ ZELAKO EUSKALDUNTZEA.

L.M. BANDRES- Hipotesi gisa demagun A ereduak porrot egin duela (nahiz eta nik ez dudan onartzen, jakina!) eta kendu egin behar dugula. Zein da irteera?

T. ERKIZIA- Une honetan "A eredu egokitu egin behar da" esatea nere ustez engainatzea da. Nik uste, gizarteko sektore baten ardura izango dela baina, funtsean administrazio aldetik dago erresposabilitaterik handiena. Zuek 1982an onarturiko Euskararen legeko 17. atalean adierazten denez haurrak bere ikasketak amaitzerakoan gaitasun berbera eduki behar duela bi hizkuntzetan. Eta hori zuek ere ez duzue sinesten; ez duzelako baloratu irizpide horien arabera eta gainera, itun honek ez du planifikatzen helburu horien funtzioan, zeren eta ereduak helburu batzuren funtzioak bait dira. Beraz, aipatu eredu horiekin heltzen al gara helmuga horietara? Bai ala ez? Berritot, helmuga diodanean, hots, hamalau urtekin bai al dakite euskaraz eta erdaraz?

Eta ezinezkoa baldin bada, aldatu egin beharko da helburua.

Horregatik diot; administrazioak erresposabilitate handia du irakasleen jarrerarekiko adibidez; Eta konpetentziak direla eta, legez planteia ezina zaizuela?

Orduan, hori da aitortu beharko duzuen, eta agian beste esparru juridiko edota beste zerbait planteiatu beharko dugula,...

- "Zergatik magisteritzan ez zaie esijitzen azken hamabi urte hauetan sartzan diren berri guztiei euskara ikasi behar dutela?"

- "Zergatik ez da planteiatzen profe-

sional guztiek euskara ikasi behar dutenik?" Beste lanpostuetan birziklaia planteiatzen da, hemen zergatik ez? Jadanik eta lege hori onartu zenetik ia hamaika urte pasa dira eta hemen ez da horrelako neurririk hartu. Beno, nik uste dut langile alorrean oso serio planteiatu behar dela arazoa, ez esijentzia edo inposaketa moduan, baizik eta euren profesionaltasunaren ondorio gisa. Zergatik ez da markatzen epe zehatz bat horretarako?"

- "Funtsean irakasleekiko politika da arazoa eta ez gurasoak, jasotzen dituzuen presioak irakasleen aldetik jasotzen dituzelako eta ez gurasoengandik. Adibidez, 1986ean, B ereduari buruzko dekretua agertu zen non esaten bait zen erdaldun irakasleak sar zitezkeela. Zeinen presioz? Irakasle sektore konkretu baten presioz eta zuek amore ematen duzue holakoetan. Eta gizartearen zerbitzutan jarri baldin badugu zerbitzu bat, seriooki planteiatu beharreko gauza dela iruditzen zait; neurri zehatzak hartu beharko dira eta horrelako asmorik ez dagoen bitartean beti esango dugu "irakasle goaren arazoa dago" Eta administrazioak neurririk hartzen ez duen bitartean beti iraungo du arazo honek.

- "Bai haurrak eta baita gurasoak ere, motibatu egin behar dira"

L.M. BANDRES - Ni hein handi batean ados nago baina hasieran esan dudan bezala euskalduntze prozesua ez da irakaskuntzako arazoa bakarrik, gizarte osoarena baizik. Askotan hemen joera dugu denok (matematikan esaten dugun gisa) *aldagai bakarreko funtzioaz* pentsatzea, hau da, porrot egiten

bada administrazioaren errua da. Eta hori ez da hala. Adibidez: nire seme-alabak Sto. Tomas lizeora joaten dira eta errekreoko garaian esate baterako denak erdaraz aritzen dira eta hori ikastolan, zoritxarrez; txiki-txikitatik euskaraz ikasi dute etxean, betidanik ikastolara joaten dira eta halaz ere errekreoan erdaraz. Beraz, administrazioak bere erruak izango ditu baina erabat ez euskalduntzearen errua berari besterik ez leporatzea,...

Orduan zer egin behar da? Oso prozesu konplexua da. A ereduak porrot egiten badu sakonki aztertu beharko da. Beraz, Guraso batzuek ohartzen badira bere ama hizkuntza erdara dela, bere ingurune nagusia edo absolutua erdalduna dela (Euskal Herrian leku askotan gertatzen den gisa), nik uste guraso horiek eskubidea dutela A ereduaren bitartez euskalduntzeko eta A eredu horrek bere emaitzak eman beharko ditu eta guraso horiek eskubidea dute hori esijitzeko. Beraz A eredu berraztertu egin beharko da; baina ez dut uste, A eredu kentzea eta B erdutik abiatzea irtenbidea denik. Zeren eta Euskal Herrian moeta askotariko jendea dago eta batzuk hizkuntzari emango diogu inportantzia eta beste batzuk beste zerbaiti.

Gurasoak libre dira beren hurrekin nahi dutena egiteko,...

Beraz, irakaskuntzaren eragin ikaragarriaz ez dugu ahaztu behar baina irakaskuntzarekin bakarrik ez dugu lortuko herri hau euskalduntzerik; ingurugiro erdalduna dagoenetan oraindik "kontrakorriente" joan beharko bait dugu, oso prozesu luzea izango delako.



Euskal Eskola Publikoa


Euskal Eskola Publikoaren lege-proiektuari buruzko iritzia eskatu bazait ere, gobernukideek sinatu berria duten paktuko beste atal batzuetara luzatuko dut neure iritzia, lege-proiektutik at dauden baina hitzarmen horretan jaso dituzten hainbat akordioak ere baldintzatuko bait du Euskal Eskola Publikoaren izaera eta etorkizuna.

KORO AGOTE (EUE ko parlamentaria)

Lehenik eta behin azpimarratu behar da lortutako akordioaren garrantzia. PSOE eta PNVren urtetako desadostasunei amaiera emanaz, behingoz, gobernukideek finkatu dituztelako gure hezkuntz arloan dauden arazoei aurre egiteko irizpide, epe eta baliabideak. Beraz, badu azkenean gobernuak hezkuntz programa jakin bat. Jarraian esan behar da ordea, hitzarmen hori eskola ituna bilakatzeko negoziatu, aldatu eta hobetu egin beharko duela Gobernuak, kontsentsu soziala bilduko duen Paktua lortuz.

Hitzarmen horren atal nagusienak dira planifikazioa, finantziarioa, euskalduntzea eta Euskal Eskola Publikoaren lege-proiektua eta Gorputz Dozenteen Lege-proiektua. Bi azken hauek direlarik soilik, Legebiltzarrean eztabaidatu eta erabakiko direnak, beste guztia Gobernuaren erabakien esku gelditzen delarik hitzarmen horrek jasotzen duena betetzen bada.

Gure hezkuntz sistema hiru saretan dago banatua, (pribatua, publikoa eta ikastola), hiruren diru-iturri nagusia diru publikoa delarik. Azken urteotan jaiotza kopuruaren beherakadak gainera sekulako sare arteko kompetentzia sortu du, askoz urriagoa delarik dagoen eskola eskaera eskaintza baino. Horrek begien bistan jarri du **planifikazioaren** premia larria, baliabideen erabilpen arrazionalagoa egiteko eta sare arteko konfrontazioa uxatzeko. Gobernuaren proposamenaren arabera Euskal Eskola Publikoaren eta Gorputz Dozenteen Legea indarrean jartzen direnetik aurrera bi saretan banatuko da hezkuntz sistema eta ikastola bakoitzak bata ala bestea hautatu beharko ditu. Ondoren sare bakoitzak une horretan duen ikasle portzentaiaren arabera egingo da urtetarako planifika-



zioa eta urteroko irakaskuntz eskaintza. Sare bakoitzak bere eskaintza eta gela planifikazioa egiterakoan ez du portzentaia hori gainditzetik izango, beste sarearen portzentaia gutxituko bait luke eta banaketa finko hori errespetatzea hartu da planifikazio irizpide nagusitzat. Banaketa horren barruan sare bakoitzak bere aldetik antolatzen du bere planifikazioa, era paralelo eta konpartimentatuan.



Euskal Ezkerraren ustez hau arbitrarioa eta desintegratzailea da. Aurreko gobernu programan jasotzen den eran guk planifikazio eta programazio amankomunak aldarrikatzen ditugu herri mailan edo eskualdeka egituratuak, eskolaren titularitatea kontutan hartu gabe. Guk aldarrikatzen dugun Euskal Sistema Propioaren ezaugarrietako bat finantziario eta eskola baldintza baliakideak lituzketen eskolak planifikazio eta programazio amankomunpean egotea litzateke, zein sare batekoak zein bestekoak; guraso-ikasleen eskaera izanik planifikaziorako irizpide nagusietako bat. Askoz integratzaileagoa eta demokratikoagoa deritzagu. Bestalde era horretan finantziarioa planifikazioaren menpe gelditzen da, ez bait litzateke ordainduko planifikazioaren arabera soberan legokeen gelarik inongo saretan.

Euskal Eskola Publikoaren eta Gorputz Dozenteen lege-proiektuei dagokienean berriz, gu erabat ados gaude abiapuntuarekin. Hain zuzen ere lege hauen bidez eskola publikoa eta bertako irakaslegoari atxikia arutzearekin. Aspalditik datorren behar bat da, ikastolarik ez balego ere beharrezkoa. Baina gainera, ikastolen eta gaurko eskola publikoen konbergentzia aldarrikatu dugunon ikuspuntutik aipatutako bi lege-proiektuak historikoak izan daitezke bi sare hauen integrazioa lortzen badute. Horretarako titularitate publikoa eta errejimen funtzionariala ezinbestekoak jotzen ditugu. Gainera ikastoletako irakasleen eskubideak errespetatuak geratzen dira: funtzionari egiteko aukera bideratuaz lehiaketa oposizio mugatutakoaren bidez ala duten harreman laboral berarekin jarraituaz. Gaur egun hortik kanpora egiten diren proposamenek, dugun

marko politiko-juridikoa kuestionatzeaz gain nola aldatu adierazi gabe, egoera bat defendatzen dute esaten ez badute ere: egungoa, bai ikastolentzat eta bai eskolentzat, azken hauek bere horretan jarraitzea ez zaielarik axola. Baina badaude beste bi aldagai Euskal Eskola Publikoa hezurramitzeko funtsezkoak direnak eta bi hauetan somatzen ditugu guk sekulako hutsuneak: eskola-irakaslegoaren euskalduntzea eta eskolaren autonomiaren arauketa.

Lege-proiektuak eskolaren autonomia arlotan finkatzen du: pedagogia, antolaketa eta gestio mailan. Gure ustez hala ere era eskasegian. Ez dago autonomiarik erabakigaitasuna eskolaren baitan ez badago eta pedagogi autonomia ez dago garatzerik baldin eta bai giza-baliabideen aukeraketa eta antolamendua bai baliabide ekonomikoen erabilpenean eskolari ez zaion partaidetza garrantzitsua ematen. Proiektuak teoriarik onartzen baditu gero ez ditu bideratzen eskubide hauek. Guk legebiltzarrean aurkeztutako enmendakinak helburu bat izango dute: administrazioaren baitatik eskolaren baitara bideratzea erabakigaitasuna.

Hitzarmen atalik ilunena eta proposatzen duten eskola publikoaren gabeziarik nabarmenena euskalduntzearekin lotua da Euskal Eskola Publikoaren lege-proiektuak eskola elebiduna definitzen du eta bertan irakaskuntzak ikasleak bi hizkuntza ofizialen jabe egingo dituela finkatzen. Hala ere honetarako ezinbesteko baldintza irakaslegoa elebiduna izatea da eta Gorputz Dozenteen lege-proiektuan finkatzen bada ere irakasle lanpostu guztiak hizkuntz eskaera bat izango dutela betebeharrekoa, lege-proiektuetatik kanpora jaso dute hitzarmenean honen eduki zehaztua eta hizkuntz profilenak praktikan ez du bermatzen irakaslego elebiduna.

Irakaskuntza oraingo hiru ereduetan antolatzeke erabakia hartu dute, demostratua dagoenean A ereduak ez duela ikaslego euskalduntzeko balio, diskriminatzailea dela 200.000 ikasletik gora uzten duelako gizarte elebidunean integratzeko aukerarik gabe. Horri erantzen badiogu eredu horretan lan egiten duten 35 urtetatik gorako irakasleak euskara ikasteko beharretik libre uzten dituela, pentsa genezake eredu honi eusten zaiola irakaslego erdaldun baten interes korporatiboari erantzuteko eta ez ikasleen eskubideak errespetatzeko. Bestalde ereduaren arauketa finko hau eta horren arabera irakaslegoaren hizkuntz eskaerak antolatzea ikastetxeen pedagogi autonomiaren kontrako da eta A ereduari ipini dizkioten hizkuntz helburuak Euskararen Normalizazio Legearen eta LOGSeren kontrakoak. Teoriarik bi hizkuntz eskaera definitzea aurrerapausoa bada ere praktikan O profila ezarriko da hamar urtean. Esan genezake beraz, gobernuakideen akordioa honetan benetan dezepzionagarria dela eta euskal hezkuntz sistema elebiduna garatzekotan aldatu beharrekoa.

Gure jarrera, laburbilduz, kritikoa da Gobernuaren proposamenaren aurrean. Hobakuntzak exijituko ditugu euskal eskola publikoa, izenak dioen bezala euskalduna izateko, autonomia sakona eskura dezan eta eskola komunitatearen esku egon dadin.



'Escuela Pública Vasca' Lege honekin erresistentzira berriz

Euskal Eskola Publikoaren legearen gaur egungo beharra eta egokitasuna adierazteko ezinbestekoak dira erreferentzia historiko batzuk.

Aipa ditzagun esate baterako, "publiko" kontzeptuaren erreferentziak. Estatu mailan "publikotasuna" kontzeptua liberal pentsaerarekin batera sartzen da eta, alde horretatik kontserbadorea baino irekiago eta aurrerakoia bezala sailka dezakegu, denontzako eskubide batzuk bermatzeko sorturiko egitura eta antolamendu bat delako. Horregatik, publiko izatea erreferentzia nagusia da batzuren esanetan. Bestalde, hor dugu populuari edo kolektiboari dagokion erreferentzia nahiz Estatuari dagokiona ere. Jadanik 1857ko Moyano Legetik, sare publikoa sare estatala bezala eskaintzen zaigu, baina Euskal Herrian Foruak direla medio, udal sareak genituen. Beraz, Eskola publiko sarea udal sarearen aurka zabalduko da eta, are gehiago, hezkuntzako haur guztien hezkuntz eskubideen eta, batez ere irakaslearen duintasunaren berma nabarmenaren gisa datorkigula diotelarik.

FELIX BASURCO MOTRICO (Unibertsitateko Hezkuntz Mintegia)

Euskal Eskola historian zehar, eskola publiko-estatal horrek baztertzen dituen euskaldunon eskubideak, hau da, hizkuntza eta kultura, defendatzeko eta berreskuratzeko ekintza soziala bezala agertuko zaigu behin eta berriz:

a) Gogora dezagun Erregenerazionismoaren garaian, Azkuek 1898 urtean Bilboko Jardineseko kalean sortutako "Ikastetxea";

b) 1918tik aurrera Nazionalismoaren hasieran Foru Aldundiak Eusko Ikaskuntzaren eskutik, euskararen defentsaren aldeko lekukoa jaso zuten eta ekimen publikoetatik eskolar eta ez-eskolar mailan proiektu asko eragin zituzten, horien artean ezagunetariko bat eta eredu gisa aipagarria, Bizkaiko Aldundiak "Plan de Escuelas de Barriada" izenez sortu zuena. Beharbada, Euskal Herriko historian zehar lehenengo aldiz ibili ziren elkarrekin eskola euskalduna, publikoa eta berria.

d) Errepublika garaian laizismoaren aitzakiaz EAJ-k sistema publikotik at "Ikastola"ren izenez sortutako ekimen eskolarrak eragin zituen. Izan ere, frankismoaren garaian sortutako Ikastolen haziak Errepublika garaian ibilitako andereño eta ikasleak izan bait zituen.

Guda zibilaren ostean, frankismoak Nazio-Estatuaren filosofiari jarraituz, "Eskola Nazionalak" sortu zituen "publiko" kontzeptu hori baztertuz. Gure artean ziuraski irakasle asko izango gara "Eskola Nazionalak" pasatu garenok eta "Maisu Nazionalak" izan garenok.

Frankismoaren amaieran eta trantsizio garaian "Publikotasuna" oso hitz erakargarrian bilakatu zen eta horren inguruan eskakizun asko elkartuko dira. Eskola mundu honetan adibidez. 1970ko hamarkadan "Eskola Publikoaren aldeko Alternatiba batzuk" osatu ziren, eskolaren berrikuntza, hizkuntz normalakuntza eta eskolaren aldaketa demokratikoa bideratzeko asmatuak hain zuzen ere. Alternatiba hauek, valentziar, katalunyar edota, Madrilgo Lizentziatuen Ikastetxearena adib., oihartzun handikoak izan arren, orduko legediak, hots, Hezkuntz Lege Orokorrak edota, Konstituzioak berak, ez zien jaramonik egin, proposamenak alde batera utziaz.

Horrela, 1979 inguruan, UCDko LOECE edo PSOEko LODE agertu baino lehen, Eskola Pribatuen subentzioa erregulatzeko proposaturiko Finantziarioaren lege-zirriborro batean 'Eskola Publiko' hitzak berreskuratu ziren "Eskola Nazional"aren kontzeptua baztertuz. Baina aldaketa honekin Admi-

nistrazioak "publiko" hitza gehituz "publikotasun"aren aldeko alternatibaren ondoan zegoen indar soziala kapitalizatu nahi zuen, bai eskola pribatuaren aurka eta baita eskola barnean edo inguruan zegoen mugimendu berritzailea, soziala eta sindikala suntsitzeko asmoz ere.

Ikuspegi honetatik ulertu behar da "eskola transferitu" hitzaren inguruan sorturiko iskanbila gure artean. Hizkuntza ofizialak zituzten Komunitate Autonomoetan "Eskola Publiko"aren alternatibetan era tinko batean bideratzen zuten hizkuntz normalkuntza eskolaren bidez. Baina publikotasunaren alternatiba oso batean, hots, gaur eguneko eskola publikoaren aldaketa, berrikuntza eta demokrazia batera. Beraz, gauza bat zen "publikoa" edo administrazioarena izatea eta beste gauza bat "publikotasuna" edo populuari zegokiona izatea, alegia. Horregatik, garai hartako euskal Administrazioak "eskola nazionalak edo nazio-estatalak" euskalduntze eta berrikuntza ikuspegitik "publikotasun" kontzeptu horrekin bat ez zetozenez, "transferituak" deitu zituen egiazko "publikotasuna" lortu arte.

PSOEk, boterea eskuratu zuenean, Pedagogi-Berrikuntza mugimenduetan zebilen irakasle goarengana jo zuen bere Administrazioa eta bere programak osatu ahal izateko. Horrela ulertzen dugu Administrazioaren erreforman ADARRA-kide askok parte hartu izana. Gauza bera esan dezakegu Ikastolen Federakuntzari buruz. Estrategi honek hasieran behintzat, espektatiba ugari sortu zituen eskolako jendearengan. Baina gero, emaitzak batzuk ikusiz joan garen heinean tranpan bilakatu zaigu gure hasierako konfidantza hura eta beharbada kasu nabarmenatariko bat dugu Akordio Politiko hau.

Inozoak izaki edota nekaturik jadanik, gure artean askok pentsatu genuen Administrazioak "publikotasuna" sakonduko zuela eta konfluentziaren bidea (populuari dagokion esanahia-ri jarraituz), onartuko zuela gure eskolako kalitate, antolatze, euskalduntze, berrikuntza, partaidetza eta demokratizatze arazoei behin betirako irtenbide zuzena emanez. Horregatik, ikastoletako moeta desberdinak eta eskola publiko estamentu desberdin batzuk EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIaren alde jarri ziren. Baina, Akordio Politikoa irakurri ondoren engainaturik sentitu gara eta ulertu dugu "Publiko" kontzeptuaren esanahia estatu eta administrazioari dagokion gauza bat dela oraingoz.

Beraz, nekaturik egon arren, erresistentziaren garaia ez da amaitutzat eman behar eta benetako "publikotasuna eta euskalduntzea" lortu arte erresistentzia estrategia berriak hasi behar ditugu prestatzen. Aurtengo abuztuko Cuadernos de Pedagogia aldizkariaren zenbakiko "100 medidas para la Escuela Pública" txostenean proposatzen dutenez, Euskal Eskola Publiko Berriaren irtenbideak ez du administrazioetik etorri behar, eskolako partaide eta estamentu desberdinen partaidetza eta lanaren bidez baizik. Ildo horretatik gure artean daukagun beste adibide interesgarria SORTZEN Mugimendua dugu.

1. AZTERKETA GLOBALA

Akordio Politikoa eztabaidatu baino lehen, irakurketa kritiko orokor bat egingo dugu:

1) Hasteko *Escuela Pública Vasca* izena berak, ez du islatzen sistema propio eta oso bat, gaur egun daukagun eskola sistema baino. Hau da, mugatua eta sektoriala suertatzen da. Egokiagoa izango litzateke Euskal Eskola Berria edo, zergatik ez, Euskal Eskola Nazionala.

2) Legetasmo honen beharra eta ardatzak justifikatu ahal izateko *Motiboen adierazpen bat* erantsi behar izan diote sarreran.

3) *Hezkuntz sistemaren normalkuntza* lortzeko behin betiko amaiera izan dezan legetasmo hau proposatzen ote dute?

a) Normalkuntza horrela interpreta daiteke, hau da, "azkenean Euskal Herrian ere LODÉ eta LOGSE dira nagusi" edo "Konfluentzia mugimendua pikutara joan dadila..."

b) Ikastolen Federakuntzak egin dituen proposamenetik (kontsortzio, autonomia, gestioa, euskalduntze erreala eta orekatua, jabego-kidetzak, heziketaren kalitatea, finantziaketa, pertsonalgora) ez dago arrastorik. Are gehiago, ez dira agertzen hautatzen dituzten proposamenen zergatiak eta arrazoiak justifikatzeko zergatik ez diren bidezkoak elkartu nahi duten ikastolen proposamenak.

d) FAPASen proposamenak (partehartze erreala, korporatibismoa gutxitzea, sare publikoak sistema gisa behar duen independentzia eta administrazioaren kontrol eza) ez dira aintzakotzat hartzen eta LODÉren korporatibismoa eta partehartzeko erakundeak indartzen dira.

e) Eskola publikoek dituzten arazoei buruz (prestigioa eta kalitatea, haur kopurua, eredu linguistikoak, euskal curriculum, irakasle goaren euskalduntzea, gestioa,...) ez dago gauza handirik. Beharbada, gestioarena zertxobait aldatuko da. Bestalde, orain funtzionatzen ari diren postuak edo LOGSEn proposatzen direnak (inspektoreak, zuzendaria, zuzendari



taldea, idazkaria, ikasketa burua, klaustroa, kontseilu eskolarra, aholkulariak, e.a...) berriz errepikatzen dira zehazki arautuz. Hor dago normalkuntza.

f) Araban batipat, edota irakaslego funtzionarioen artean lehendik euskalduntzeari buruzko iraupen-jarrerak bazeuden, orain euskarak daukan trataerarekin gutxiagotu egingo dira agian, baina hori horrela balitz, ezin dugu positibotzat eman erreakzionariotzat baizik.

g) Akordioaren sarreran aipatzen den moduan, badi-rudi ikastolak direla gatazkatsuak edota, ikastolak direla hezkuntz sistema oztopatzen dutenak. Ados ez egon arren, hamar urte hauen perspektiba historiko batean ikusita, esan beharra dago Administrazioa dela gure hezkuntz sisteman ahulena eta gatazkatsuen, hau da, bere malgutasunaren ezaz eta burokrazia ugariaz. Baina lege honetan, nahiz eta autonomia hitza sarritan erabili eta espazio handia bete, administrazioaren deszentralizatzeko prozesu eta borondaterik ez da agertzen; eskolatik at konpetentzia asko eskuratzen duelako batetik eta, eskola barruan burokrazia sare ugari sortzen duelako bestetik.

4- *Sistema propio* baten bila ote dabil legetasmo hau? Ezta pentsatu ere. Gauza bat da eskola gobernatzeko lege propio bat edukitzea eta beste bat hezkuntz sistema propio bat osatzea.

a) Sistema propio bat garatu beharrean, LODE eta LOGSEren aplikapen hertsia besterik ez da. Bestalde, sistema propio bat nahiz eta gaur egun ezinezkoa izan, perspektiba horrekin osaturiko lege batek ezin dizkio eskola nazional bati ate guztiak itxi, legetasmo honek egiten duen bezala.

b) Lege honek, hezkuntz sistema eskolarekin berdintzen du eta are gehiago, sare ez-unibertsitario publikoarekin. Beraz, beste sareak ez dira sartzen horren barruan, aidean geratuz. Era berean, helduen irakaskuntza eta euskal helduen irakaskuntza kanpoan geratzen dira, Euskal Herrian oso sare hedatua izanagatik eta LOGSEk hezkuntz sistemarako eskuratuagatik. Beraz, ez da ausardiarik izan sistema osoa eta propioa arautzeko behar zen moduan.

d) Lege honek kontsentsu politikoa lortu arren, ez du kontsentsu sozialik lantzen. Berritoren gatazka eta mesfidantza sortuko dituelarik ikastolako eta eskola publikoko partaideen artean; propioa izan beharrean, alderdi batzuen inposaketa-tzat hartzen delako.

e) Legetasmo honek eraman duen prozeduragatik Gobernuaren harropuzkeria adierazten du. Publikotasunaren jabetza eskuratuz eta azpimarratuz, Gobernuak urrezko abagadunea galduko du hezkuntz sistema publikoa eta Administrazioa herriarengan hurbiltzerakoan. Jarrera hauekin eskola publikoa gobernukideen eta politikoen koto pribatua dela dirudi. Beraz, beharrezkoa zen eskola instituzio bezala, ikastola sortu zen bezala integratzea, hau da, eskola publikoa "gure" erakundea izaterik ez da horrela lortuko. "Gobernuaren propietatea" direla argi eta garbi geratzen da eta ondorioz noski, "Administrazioaren sareak biltzen gaitu".

f) Propio=euskalduna. Euskalduntzearen ikuspuntutik legetasmo honek ez du errespetatzen Euskal Herriko legedia; ez Gobernuak berak eramaten duen hizkuntz politika, ez



hamar urte hauetan izan diren demandak eta esperientziak, ezta Gobernuak berak edota Unibertsitateak egin dituen ikerketa multzoak ere (gutxienez 33 ikerketa egin dira orain arte). Lege honek euskalduntzeari bizkar ematen dio, broma edo iraina dirudi. Euskal Eskola Nazional batentzako EUSKALDUNA sustantiboa da eta PUBLIKOA berriz, adjetiboa.

5) *Prozedura* bezala, eztabaida sozial zabalik sortu ote? Eztabaida sozialaren orde, formalismo hutsa izan da. 1988/10eko legeak planteiatzen zuenaren aurka, itun eskolar zabalik lortzeko asmorik ez da agertu, akordio politikoaren legitimizazioa baizik. Izan ere, diktamenak egiteko korrika eta presaka oporretako garaian egin dira eta eztabaidarako forumak ez dira administrazioetik eragin.

6) Legetasmo honek "*administrazio bakarraren printzipioa*" gauzatzen du. Akordioaren sarreran aipatzen dituen Euskal Herrian hamarkada honetan izan diren oztopoak Autonomi Estatutuak ematen dizkion "konpetentzia osoak" burutzeko kontutan hartuz. Lege honetan zentralismo administratiboa suertatu da garaile, Departamenduak erabaki gehienak monopolizatuz edo baldintzatuz.

a) Estatu eta Autonomiaren artean izan diren tirabirak, Auzitegi Konstituzionalaren eraginez beharbada, irakurketa estatalaren alde erabaki dute legetasmo hauetan.

b) Autonomia mailan Administrazio publikoen artean izan diren tirabirak eta ahalmenak erakunde amankomunen edo Gobernuaren alde jotzen du legetasmo honek; 1990eko zirriborroetan agertzen ziren aipamenak salbu.

d) Administrazioaren eta beste erakunde eskolarren artean eduki beharko liratekeen harremanetan, Administrazioa eta korporatibismoa dira nagusi. Sistema osoari begiratuz

ikastetxeetarako eta zuzendarientzat aipatzen diren kompetenziak eta autonomia, ia edukirik gabe suertatzen dira behin baino gehiagotan. Ikastetxe barrura begira, zuzendaritza indartzen dute botere, erabaki eta funtzio guztiak bereganatuz.

e) Gurasoen eta ikasleen partehartzea gero eta ahulago geratzen da. LODeri jarraituz funtzio kontsultiboetara mugatzen da. Bestalde, beste erakunde publiko eta sozialen partehartzea puntualki aipatzen da, baina garatu gabe.

7) *Protagonismo Politikoa* da nagusi:

a) Estatu mailan, eskola eta irakaslegoaren legeren bat plazaratzen duen lehenengo Autonomia izango da. Bitxikeria hau, ohore bat izan ordez eta LOGSEren irekitasuna ikusiz, gure etorkizuna ez ote du mugatuko?

b) Itun eskolarra akordio politikoaren menpe geratzen da: akordioak sei zati ditu, baina lehenengo lauak akordio politikoaren bidez gobernuaren politika finkatzen dute, eta beraz, eztabaidarako diren puntu bakarrak legearen bidea jarraituko dutenak dira, hauxe da, eskolarena eta irakaslegoarena.

d) Eskola honetan administrazioa eta era guztiko funtzionarioak izango dira nagusi sistema eta ikastetxe mailan, gaur egun daukagun sistema publikoa errepikatuz.

e) Legetasmoaren xedeak, askotan oso eskuzabalak dira agintean eta eskaintzen, baina baliabideak sarritan ez dira egokitzen edo politikoak diren akordio honetako konpromisuen eraginez oso mugatuak suertatzen dira. Beraz, lege honek duen arazoa ez da legala, politikoa baizik, legeak agintzen duena askotan zentzu programatiko batean geratzen baita aitormen huts bezala.

8- *Konfluentzia* landu beharrean, integrazio gorria proposatzen du. Legetasmoak edukinen garapenean 1988/10eko legea ez du kontutan hartzen, nahiz eta aipatu. Konfluentzia hitza ez dute aipatzen eta ez dago adierazpenik baztertze legal honi buruz.

9- *Jabegotasunak*, orain bezala, jabego politiko-administratioaren filosofia jarraitzen du:

a) Legetasmo honek ez dakar jabego eztabaidatsu horretaz berrikuntza propiorik, dagoena berreskuratu besterik ez. Gainera, kalean zeuden beste filosofiak (jabego lokala edo kidetza, alegia), ezer esan gabe baztertzen ditu.

b) Hezkuntz sistema = eskolak edo ikastetxeak. Eraikitzen duten sistema eskolarra guztiz isolaturik eta atomista suertatzen da, eta guztiz gizarte-kontrolik gabe. Hezkuntz departamendua eta bere administrazioa da jaun eta jabe.

d) Jabegokidetzarik ez. Lanbide heziketan ezik, beste alor guztietan behar eskolarrei erantzuteko eskola bakoitzari dagokion baliabide eta aurrekontuekin funtzionatu behar da.

e) Koordinaziorik ez. Gobernuko departamentu edo Administrazio desberdinetako koordinaketa lerro bateko aipamenean bukatzen da, konkretziorik gabe.



f) Ardurakidetzarik ez. LODeri jarraituz, beste ekintzaileen partehartzea Batzorde eskolarren bidez gauzatzen da eta eguneroko praktikak egiaztatu bezala maila informatibo eta testimonial batean geratzen dira, haien eraketa parekotasunik gabekoa delako eta bere funtzioa kontsultiboa eta administratiboa besterik ez baita.

g) Kontrolik gabe. Hezkuntz sistema ikastetxe sare bietara murrizten da. Administrazioa eta kontrola areagotuz Gobernuak monopolizatzen ditu erabaki asko eta asko. Beraz, hezkuntz politika eta aurrekontuaren banaketa kontrolik gabe suertatzen dira.

10- Sistemari egonkortasuna emateko *eredu administratibista eta erreglamentista* hautatu dute.

a) Legetasmoa ez da eraikitzen gizartean eta heziketa munduan dauden betebeharrei, egiturei eta ingurune propio eta desberdinei erantzun egokia emateko, eskola kontrolpean era erraz eta merkeaz eusteko baizik.

b) Egitura eskolarra eta administratiboa indartzen da dauden irudi administratiboak arautuz eta beste berri batzuk sortuz. Izan ere, batzuk txalotu egin dute legetasmo hauetan orain arte finkatzeke zeuden irudi batzuk arautzeko ahaleginak



egin direlako.

d) Orain arte, gobernukideen iritziz, ikastola erabaki politikoaren bidez indartu egin omen da. Horren truke, normalkuntza ezartzeko erabaki administratiboen pean jarri behar dute sistema uniforme (administrazio bakarra), estatikoa (matrikula kopuru egonkorraz sare bitan) eta menpekoa (funtzionaritzaren bidez) sortuz.

e) Sistema gogor eta zurrumbidean sartu dute eskola. Eskola erabaki printzipalak (Hezkuntz Proiektua, Euskal curriculum, Urteko Plangintza eta Eskola-Ordezkarien Organu Gorena-ONE) oso arautuak daude eta askotan politikarien eta eskolatik kanpoko teknikoen (Inspektoreak,...) edota erakundeen (Batzorde eskolarrak) eskuetan daude goi mailako hezkuntz-politika, ebaluaketa edo aurrekontuaren banaketak, aipaturiko erabakien funtzionamendua baldintzatzen dutelako.

f) LOGSEren proposamenak burutuz, inspektore eta irudia sendotu egiten du eta, administrazioaren luzapena denez, beraien esku geratzen dira ikastetxeei dagokien erabaki asko eta asko.

11- LODEk autonomia pertsonala,hots, askatasun indibidualak nola interpreta daitezkeen finkatu eta arautu zituen gisa, legetasmo honek LOGSEren eraginez *ikastetxeen autonomia* arautu egiten du. Lege erdiak puntu honi buruz baitihardu. Horregatik, administrazio baretik ikusirik eta administrazioaren sareari amore emanez txalotzen dute legetasmo hau.

a) Autonomiaren aitormena beharrezkoa zen; baina legetasmo honek bideratzen duen autonomia formalista eta erreglamentistan bihur daiteke.

b) Autonomiari buruzko irakurketa LOGSEren eraginez datorkio legetasmoari eta badirudi, LOGSEren beste irakurketa mugatzeko egin dela. Beraz, autonomiaren trataera lantzeko izan ordez, autonomia kontrolpean eusteko egin dela dirudi.

d) Dena dela, autonomia = autonomia administratiboa edo aurrekontuaren malgutasuna.

e) Autonomia hitza erabiltzen da, deskontzentrazioa estaltzeko, zeren eta kompetentzia gehienak Administrazioaren onspenaren arabera geratzen baitira.

f) Autonomia erreglamentista. LODEren eskutik

irudi administratibo asko sortzen eta arautzen dute baina kompetentziarik gabekoak.

g) Funtzio berri asko aidean geratzen dira beste erabakien menpe gertatzen direlako: eredu linguistikoak, modalitate profesionalak, adaptazio curricularrak, irakaslegoaren egonkortasuna eta euskalduntzea, e.a.,...

h) Burokrazia da nagusi. Orain arte bezala, edozein tramite labirintoan bilaka daiteke eta joan-etorri batean gal daiteke edozein proposamen, nahiz eta LOGSEren aholkuei jarraituz, ikastetxeko negoziazioaren edota beste berrikuntza-aren bidez lortutako proposamena izan.

i) Ikastetxe barrura begiratzuz gero, Autonomiak, korporatibismoa indartzen du: Autonomiaz edota autonomiarik gabe, eskolak irakaslegoaren eta zuzendaritzaren esku jarraituko du. Eta hau larria bada, askoz larriagoa da irakaslegoak euskarekiko izango duen amnistia. Legean gauza positibotzat azaltzen denez, IHPko irakaslegoa euskalduntzeko **beharrak** mintzo zaigu; baina nork osatuko du aipatu IHP hori? Nere ustez burruka bizian ibili beharko dute gurasoek edota bestela, euskalduntzearen prozesua gelditzeko arrisku izugarria dago. Legetasmo honen autonomia bingoa bezala izango da, hau da, irakaslego irekia bada ongi; eta antzua eta atzerakoa bada aldiz, suerte txarra.

j) Eskola publikoak sare bezala, eskola sistema honek ez du autonomiarik eta administrazio pean geratzen da. Eta dauden ordezkarien organuak, hots, Euskadiko Batzorde eskolarrak esate baterako, ez du ziurtatzen administrazioarekiko independentziarik bere osaketan, funtzio informatibo edo aholkulari funtzioa betetzen duelarik.

12- Euskalduntze prozesuaren etena ez ote den ekarriko?:

a) Xedeak (1982ko legearenak) eta baliabideen (A eredua, PL1 profila, e.a.) artean ez dago egokitasunik.

b) Euskalduntzearen trataera euskararen trataerarekin nahasten da. Beraz, xedeak baliabideekin nahasten dira eta baliabideak, ereduak esate baterako, lege honek xedeetan bilakatu ditu.

d) Hizkuntz politikaren aurka doa. Erabiltzen diren baliabideek (ereduak, profilak eta irakaslegoaren euskalduntze trataera) ez dute bermatzen euskalduntze prozesu orekaturik. Are gehiago, euskalduntze prozesurako ez da batere eraginkorra izango eta askoz okerrago dena, behin betirako haustura izan daiteke zenbait eskualdetan. Beraz, sozialki ikusirik atzerapausu nabaria da legetasmo hau, gaur egun euskararekiko dagoen presio sozialaren etendura dakarrelako.

e) Lurraldetasun printzipiorik ez da kontutan hartzen; legeak berak 10. artikuluan proposatzen duen desberdintasunaren trataera aplikatu beharrean, betiko uniformizatzeko eta generalizatzeko printzipioa jarraitzen duelako. Beraz, legeak salatzen duen logika, hau da, "ley de máximos", "ley de mínimos" irauliz, uniformizatzeko logika bera aplikatuz.

f) "Ley de mínimos" aplikatzea errealitateari, historiari eta esperientziari bortxaketa eta mespretxuzko harropuzkeria deritzo. Legetasmo honek normaltasuna landu beharrean, erresistentziatzeko prozesu berri bat zabaltzen du bai ikastole-

tan, eta baita eskola publikoetan ere.

g) Legetasmoak irakurketa subjektibista egiten du euskalduntze prozesuaz, ikasle eta irakasleen "hautaketa libre eta borondatezkoa" azpimarratuz. Alde batetik, ez du aplikatzen "erreprizitatearen printzipioa" gaztelaniarekiko, beronen elebakartasuna onartuz. Bestalde, osatu gabeko irakurketa hertsia, intsolidarioa bezain maltzurra egiten du, 1982ko legeak, borondatezko hautaketa libre ez ezik, euskararen ofizialtasuna eta derrigorrezkotasuna ere agintzen duelako.

h) Irakaslegoari dagokion euskalduntze prozesua eta profilak ez dira egokiak. Esperientziak dakigunez, Departamenduaren monopolioa ez da nahikoa izan irakaslegoaren euskalduntze beharrak asetzeko. Bestalde, legeak agintzen dituen epeak eta orduak euskalduntze profilak lortzeko oso murrizak dira. Gauza bera, proposatzen dituen tituluak hau da, GUMA edo IGA lortzeko. Azkenean, 45 urtetarako euskararekiko amnistia, ez bada aplikatzen beste esparruei (heziketa iraunkorrari, bertziklaiari, ingelesari edota oposizioei) ez da ulertzen.



2. BERRIRO ERRESISTENTZIRA

Legetasmoa irakurri eta aztertuz gero, argi geratzen dena zera da: 1987ko Konbenioak eta 10/1988ko legeak zabaldu zuten konfluentziarako bidea, gobernukideek itxi egiten dutela. Estatua eta Gasteizko gobernukideek bat datozela berriro ere lege bat inposatzeko garaian.

Azken finean, legetasmo hau ez dator Ikastolen Federakuntzarako, Eskola Publikoetako Gurasoen Elkarteak edo beste sindikatu batzuk espero zuten sistema propioa osotzera eta esparru legal berri bat eskaintzera; alderantziz baizik, esparru legalaren indarrez baliatuz, Estatuko esparru legalari, hau da, LODE eta LOGSEri, legitimizazioaren bidea irekitzera. Beraz, "integrazio hutsa" da proposamena eta gainera, ez dakigu zernolako eskubideen izenean (derecho a la educación y autonomiaren aitaziaz). Moyano legearen gisa Estatu mailan PSOEek proposatzen duen pentsakera "neo-liberala", Euskal Herriaren gure hezkuntz eskubideen aurka doa. Honi normalkuntza deitza adar jotze ikaragarria da.

Zer egin? Historikoki normala izan den moduan, erresis-

tentziazko bidea hartu behar dugu. Baina nola gauzatu erresistentzia garai honetan?

1) Esparru legal honetatik kanpo jarraitzea. Kontziertuaren bideari joz, horrela, Euskal Herriko eskubideak defendituko dituen sistema sasi-publikoa sendotuz. Orain ditugun bi administrazio (Gasteizkoa eta Federakuntza) paraleloekin antolatutako sistema bat jarraituko delarik. Beraz, betiko arazoez: gain-finantziazioa, hizkuntz arazoak, irakaslegoaren homologazioa, mapa eskolarra, euskal curriculum bikoitza, aholkularitza, e.a. Beharbada hori da Euskal Herriko "sistema propioa", nazio-estatuaren filosofia nagusi den bitartean. Administrazioak eskola "publikoa" gobernatzeko du, baina "Publikotasuna" ikastolen esku artean jarraituko da. Gauzak horrela, nik, gobernukideen paperean, dagoen ESCUELA PUBLICA VASCA legetasmo hori bertan behera utziko nuke eta Planifikatze eta Finantziatze antzeko legetasmo bat sortuko nuke ipurdia begibistan gera ez dadin eta etorkizunerako konfluentzia edo sistema propioa eta nazionala landuko duen proiektua erre ez dadin legetasmo txingote (mamarratxo) honekin. Dena den, Ikastolen mogimenduak ezin du ahaztu Euskal Herriko erreferentzi puntua bera dela eta berez daukan "publikotasunak" bere gainean jartzen duen ardura nagusia Euskal Eskola Berria eta Nazionala bideratzerakoan.

2) Eskola publikoaren sistema barrutik erresistentzia-sare bat antolatzea. Orain arte, irakaslego eta guraso pila bat erresistentzia sistema honetan aritu dira. Beharbada, orain arte indibidualki edo nahiko isolaturik eramaten ari da erresistentzia-dinamika hau. Erresistentzia prozesu hau kolektiboki eta era koordinatu batean eraikitzeke garaia ez ote da heldu? Nori dagokion estrategia hau bideratzea eta egituratzea? orain arte, irakaslego eta sindikatuen eskuetan egon da berrikuntza eta erreformaren ardura nagusia, baina gaur egun eskola publikoaren duintasuna eta jatorritasuna berreskuratzeko ez dira aski izango. Beraz, ume egokia da, gorporatibismoaren dinamika

hau gaindituz, barneko eta kanpoko agente sozialek berreskuratu behar dute euren lekua eta ardura; guraso-irakasle eta ikasleen elkarteak, sindikatuak, udalak, aldundiak, ikastetxe profesionalak, entpresari elkarte eta gremioak, kultur elkarteak,...

Azken finean, autonomiaren edukiak, hau da, planifikatze, antolatze eta erabakitze ahalmenak ez dira bideratzen "Legalitate kontrol" batekin, praktikan gauzatzen eta burutzen baik. Zeintzuk izango dira baldintza minimoak, sare publiko barruan geratzeko diren ikastolak eta dauden eskola publikoak sistema berri hori lantzeko:

a) Sistema administratibista eta gorporatibista ahultzea edo uxatzea. Nola? Ideia batzuk jadanik kalean daude:

- Ikastetxe publikoen Gorporazio edo Federazio bat osatzea FERE edo Ikastolen Federakuntza bezala, guraso edota irakasle eta ikasleen kuotez antolatutako egitura bat.

- Heziketarako Udal Patronatuak martxan jarri, araututako eta arautu gabeko heziketei dagokien planifikazioa eta erantzun publikoa arrazionalizatzeko eta koordinatzeko.

- Zentru bakoitzeko Zuzendaritza Taldea guraso eta ikasleei ireki eta beharbada, Zuzendaritza bere Lehendakari bezala hautatzea eta funtzionatzea.

b) Hezkuntz Proiektuaren osaketa prozesuan parte hartzea jatorrizko eskakizunak erantsiz:

- Euskalduntze sistema irekia eta osoa osatuz, bai haurren bai irakaslegoaren bai gurasoen beharrei erantzuteko.

- Gure inguruko balore eta jarrera sozio-ekonomiko eta kulturala isladatuz: eskubide kolektibo eta banakoak, hezikidetzak, osasuna, kontsumoa, higiena, lanbi-



dea, lana, integrazioa, ekologia, e.a

- Didaktikazko eta ebaluatzeko Pedagogiazko estilo edo lerro garrantzitsuenak finkatuz.

- Pertsonalgora, instalazioa, ekipamendu eta baliabide beharrezkoak esijituz.

d) Ikastetxeko Proiektu Curricularreko ezagutza eta jarraipena eramanez.

- Euskal Curriculuma eta ikastetxeko curriculuma bultzatuz.

- Koherentzia bat lortuz, helburuetan, edukietan, testuetan eta ihardueretan.

- Berrikuntzari buruzko proiektuei lehentasuna eta garrantzia emanez.

- Udal edo eskualde mailan dauden kultur azpiegitura edo laborekin koordinaturik hezikidetzaren integratzea landuz.

- Eskola barruko beharrak eta eskolaz kanpoko heziketa beharrak kontuan hartzen duten curriculum plan-gintzak.

- Irakaslearen heziketa beharrak lotuz, bai profesio-nal, bai pedagogikoak eta baita euskalduntzearen ere.

e) Partaidetza eskolarra eta soziala bultzatzea lurralde-tasuna eta jatorritasuna berreskuratzeko:

- Barneko agenteen partaidetza eta inplikazioa bultzatuz eskola-antolakuntzarako sortutako organu bete-razleetan edo kontsultarakoetan.

- Planifikagintza mailan deszentralizatze egiturak bultzatuz: udaletan eta eskualdeketan.

- Kanpoko agenteen partaidetza bultzatuz bai curriculuma bai extra-eskolarrak, bai heziketa iraunkorra edo erreziklatzeko, antolatze eta finantziatzeko.

f) Heziketa eta ikastetxearen gestioa hobetzeko beharrezkoa da "legalitatearen kontrola", baina ez da nahikoa gestioa bera ere erraztu eta hobetu egin behar baita.

- Behar den prestakuntza eta pertsonalgora paratuz.

- Aurrekontuari buruzko malgutasuna emanez ikastetxeari.

- Legetasmoan Lanbide Heziketari ematen zaizkion ahalmenak beste ikastetxeetara zabalduz.

Bigarren alternatiba hau oso utopikoa izan daiteke eta hala plazaratu zen gure eztabaidetan, sistema - erregelak ez dituelako errespetatzen eta esan dugun baino zailagoa baita eskola sistema estatal honetan jokatzea.

3) Adierazitako bi prozedura global hauek ez ditugu kontra-jarriak ikusten, osagarriak baizik. Izan ere, SORTZEN Mugimenduak bi aldeotan dihardu lanean, konfluentziaren bidea jorratzeko eta Euskal Eskola Publiko Berria lortu ahal izateko.

GEHIAGO JAKITEKO BIBLIOGRAFIA.

- AA.VV. (1980) "Por una enseñanza pública popular y vasca" Rev. Arnasa nº 4.

- AA.VV. (1983) "Ikastolatik Eskola Publikora" Rev. Jakin 28zb.

- AA.VV. (1990) "Primer congreso de la Escuela Pública Vasca". Gasteiz: Gobierno Vasco.

- AA.VV. (1990) "Euskal Eskola eztabaidagai". Rev. Tantak 4 zbk. 9-127 orr.

- AA.VV. (1990) "Nazioarteko Hezkuntza ihardualdi-tarako 10 tesi". Gasteiz: Gobierno Vasco.

- AA.VV. (1992) "100 tesis para mejorar la Escuela Pública" Rev. Cuadernos de Pedagogía nº 206, julio-agosto.

- ARRIEN, G. (1987) "Educación y escuelas de barriada". Bilbao. Diputación de Bizkaia.

- EUSKO JAURLARITZA (1983) "Euskal Ikastolen Erakundea (EIKE)". BOPV, de 24 de enero.

- FULLAT, O. (1983) "Escuela pública-Escuela privada". Barcelona. Humanitas.

- GARMENDIA, M.C. (1985) "Les ikastoles en Pays Basque d'Espagne. La question du bilingüisme scolaire". Estrasburgo. Tesis doctoral.

- LANGOUET, G. & LEGER, A. (1991) "Public ou privé?". Paris. Publidix-Paris X.

- MIGUÈ, J.L. & MARCEAU, R. (1989) "Le monopole public de l'éducation. Québec: Presses de l'Université.

- MEC (1987) "Ley Orgánica del derecho a la educación. Madrid. MEC.

- LOGSE "Ley 1/1990, de 4 octubre". BOE

- LUENGO, D. (1989) "La letra con sangre no entra". Barcelona. Sendai.

- OTANO, L. (1978) "Escuela Pública Vasca. Bilbao. Adarra.

- SEMINARIO DE PEDAGOGIA DE VALENCIA, (1975) "Por una reforma democrática de la enseñanza. Barcelona. Avance.

Oharra: SORTZENek ere UEUko hitzaldietan parte hartu eta bere proiektua eztabaidatu baldin bazen ere, ez deritzogu bidezko han erabilitako txostena berriro argitaratzeari, kalean dagoelako jadanik.



Besteren kultur baliabideen kapitalizatze, optimizatze edo jabetzea

Optimizazio hitza da Gaztelaniar Hizkuntz-hiztegiak onartu beharko ez lukeen hitzetariko bat bere ahoskeraren zailtasunagatik alde batetik eta bere kontzeptualizazioaren arrarotasun edo bitxikeriagatik, bestetik.

Halaz ere ekintza bat ahal den hobekien burutzearen bilakuntza-sustantiboaren adierazgarri dugu. Eta hitz tzar hau hain aldrebesa den arren, egungo politikoek hitzetik hortzera darabilte beraien ekintza ereduz adierazteko entpres publiko eta pribatuen artean konbinaturik eta nahasirik.

JOSE LUIS ORELLA UNZUE (EHU-UPVko irakaslea)

*Erredakzioan itzulia

Hala nola, Osakidetzako kontseilariak teknika edo tresneria berrien eskasagatik klinika pribatu bateko teknikez baliatzen bada edota, une larriren batean itun bat sinatzen badu erakunde pribatuetako prozedura onkologikoak seguritate sozialekoei aplikatu ahal izateko, osakidetzaren zerbitzua optimizatzen ari dela esaten du. Hau da, Euskal Herriko osasun baliabideen aurrean optimizatze politika batek egiten duena zera da; zerbitzu pribatuetako osasun tresneri-garestia berretu eta zerbitzu publikoetan dagoen tresneriaz (dagoen tokietan) baliatu, gaixoak pozteko eta, uhin berriek edota behin behineko asmakari berria dela medio ordezkaten duten tresneria berri hauek sor dezaketen esperantza apurra estali. Osasunerako zerbitzu publiko eta administrazio pribatuen arteko denboraldi eta funtzio zehatzetako hitzarmenak izaten dira.

Entpres publiko eta pribatuen arteko optimizatze prozedura berbera gertatzen da proiektu ekonomiko garestienetan ere, bai ibai-zubiak egiterakoan, eta baita itsasoz barneko tunela egiterakoan edota, aeronautikako ikerketa

egitaraua aurrera eramaterakoan ere.

Entrepresa publikoaren eta pribatuen artean sorturiko lankidetzak hain edozein ekonomiatan desiragarri izatez gainera, helburu ere izan daiteke baliabide murrizak dituzten herrialde txikietan, hau da, gainbehera eta desazeleratze prozeduran dauden herrietan alegia, baina ez da hala gertatzen ekonomi edo osasun arlotik kultur arlora edo heziketara pasatzean.

Kapitalizazioa ekonomi arloko hitza da eta nik hemen berezko bizia luketen balore independenteen hondo nagusiarekiko gehiketa edo eransketa bezala darabilkit, nahiz eta baturik datozen kompetentzia ekiditzeko helburuz edo, proiektuaren egitasmoa elkarren artean banatzeko asmoz erabili.

Administral eta funtzional kapitalizazioa administrazio guztien joera litzateke (gaur egungo joera hain zuzen) euren kide kopuruaren gehitzea, optimizazio-printzipioaz eta subsidiarietatearen zaharrenaz ahazturik, non erakundeak eta administrazio publikoek

parte hartzen bait zuten gizartearentzat ezinbestekoa zen ekintza pribatua ordezkaten edo indartzen zutenean beti ere beraien ardurapean.

Komeni da kultur arloan egin izan diren zenbait saioren adibideak ekartzeari joera honen lekuko. Demokrazia garaiarekin batera udal askok, Foru Diputazioek eta Jaurilaritza berak ere bekarioak izendatu zituzten geroxeago, denboraldi mugatuko kontratu bidez, kultur funtzio desberdinen lanpostuak beteko zituzten langileak kontratatuz, hala nola, artxibo edo bibliotekari, proiektu egile, azterketa edo ikerketari, diktamen egile etabr. Denboraren poderioz, bekario haiek administrazioko funtzionari bilakatu dira. Eta hiru urteko kontratuaren denboraldia edota kontratua amaitu duten batzuk eta funtzionaritzan onartu ez dituztenak hain zuzen, euren egitasmo eta ekinbideak administrazioari saltzera behartuz, horrela, zerbitzu entpresetan bilakatu direlarik. Eta orain administrazioak zerbitzu hauek kontratatu egiten ditu beste inolako lan-loturarik gabe.


Dakusagunez, baliabideen optimizatzea eta kapitalizatzea kontrajarririk dauden bi teoria dira, egoerazko bi teoria, eta euskal gizartea bezain gizarte txiki honetan duen etorkizun zehatzaz hausnarketa eta erreflexio -gai izan beharko lukete hain zuzen, <Gure helburua guztiok funtzionari izango garen estatu batera iristea al da?> <Aitzitik, estatuak gaur arte erabili izan dituen funtzioen eta baliabideen pribatizatzea ote helburua?>

Ilustrazio gairaitik datorren zerbait da hau eta azken berrehun urte hauetan marko espainolaren antzeko Estatu babestaileen helburua, enpresen estatizazioa eta funtzionalgo unibertsala izan dira, batipat.

Euskal erakundeen joera aldiz, erakunde amankomun edo gorporatibo eta txikiagoen artean arduren banaketa egitea zen. Gogora bestela, antzinako erregimenean Gipuzkoako lurraldeak ez zuela izan zuzeneko sarrerarik ezta sakoneko ondasunik ere, beraz, gutxienezkoa zen funtzionalgoa. Probintziako gastuak Batzarre Orokorretan zatitu behar ziren; bakoitzari zegokien kontzejuen artean, hauek bait ziren sakoneko ondasunen benetazko jabeak eta gastuak partikularren artean hedatzen zituztenak. Halaber, kooperatiben antolakuntza ez da jokabide berria izan Euskal Herrian; euskal historiarekin loturik doan bizimodua eta lan antolaketa modua baizik; interesak elkartu eta ardura guztiak norbanako bakoitzarengan hedatzen bait ditu. Hitz batez esateko, subsidiarietatearen sistema praktikotasunean ezarria dela esango genuke.

Eta horrela, euskal heziketaren errealitatea den gai nagusira iritsi gara. Bi bidek edota, erabakik soluziona lezake te Euskal Eskola Publikoaren etorkizuna, euskara eta euskal kulturarena orohar batetik, subsidiarietateak, hau da, baliabide hezgarrien optimizatzeak, eta bestetik, besteren baliabide hezgarrien estatizazioak, zentralizazioak eta kapitalizazioak.

Jakin badakigu, Eusko Jaurlaritzak daraman zentralizatzaile jokabide horrekin ez diela inolako protagonismorik eman nahiko maila txikiagoko



erakundeei hots, Foru Diputazioei, Udaletxeei, eta kasu honetan bezalaxe Erakunde Pribatuak diren Ikastolei. Horretarako, eskaintza goxo bat egiten die Ikastoletako irakasleei funtzionalgoa eskainiz. Aurkako OPA eskaintzea da, hankaz gora botaz mende Erdiko prozesu hezgarri osoa. Eta zergatik ez ote die aurkako OPA bera eskaintzen eskola eta Unibertsitate pribatuak irakaslegoari guztiak irakaskuntza publikora pasa daitezten? Eta zergatik ez du aurkako OPA berbera erabiltzen krisialdian dauden enpresekin, adibidez, ACENOR deiturikoarekin? eta zergatik ez dute Eusko Jaurlaritzako funtzionari izendatzen etorkizuneko langabetu eta jubilatu guztiak?

Ikastoletako irakaslegoa funtzionari bilakatzearen proiektuak, euskal tradizio edo ohiarekin apurtzea dakar, orain arte ekimen pribatu eta erakunde publikoen arteko lankidetzan oinarriturik egon bait da.

Eta dena den, euskal gobernu gobernu estatalaren ordezkaria denez, ez dut uste oso zuhurra denik gobernu baten esku uztea euskal kultura bezalako ondare preziatua eta etengabeko esfortzua. Gobernuak aldakorak izaten dira eta ez dugu inolako seguritate egungo eta etorkizuneko gobernuek zainduko dutenentz euskaldunontzat hain preziatua den euskara eta gure kultura. Oso gertuko Gobernuek argi eta garbi erakutsi digute hizkuntza (euskara) eta kulturari eustea ez zegoela

beraien helburuen artean. Eta gobernu hauek historia badira inork ez dezake esan etorkizun ere izango ez direnik.

Eta nire iritzia euskal herriko historiarekin kontrastaturik dagoela iruditzen zaidanez, euskal kulturaren eta euskararen iraupenerako biderik onena subsidiarietate eta baliabideen optimizatzearenari deritzot eta ez aurkako OPA horri, egungo irakasleentzat eta oso epe motzerako erakargarria izan arren, euskal kultura eta euskararen iraupenaren helbururako etorkizunik gabekoa bait da.

Ikastolak euren historia moduaren jabe dira, euren ekinbide propioaren jabe, beren kontrol eta eboluzioan guraso eta udaletxeen partaidetzaz. Subsidiarietatearen eta baliabideen optimizatze printzipioa dela medio Eusko Jaurlaritzaren subentzioa jaso behar dute. Eusko Jaurlaritzak behar diren sosak eman behar dizkie, hitzarmenduriko parametroen pean gastua gauzatu dadin horretarako kontrola ezarri. Baina luzarora aurkako OPA hau ez da batere komenigarria ikastolara bidaltzen ditugun seme-alaben gurasoentzat, eta ezta askoz hobea ere eskuetatik ihesi joango zaien proiektuari hainbeste urte eskaini dien irakasleentzat (bapateko segurtasuna ez bada), -eta hau, heziketa kontseilaritzako funtzionari den honek dio-, hitz batean, ez da soluziorik onena euskal kulturaren eta euskararen etorkizunerako.



Euskal Eskolaz zenbait aburu

*Euskal Eskolaz mahai-ingurua udako euskal unibertsitateak (UEU) antolaturiko pedagogi sailaren barruan.
Iruña, 1992ko uztaila.*

Iñaki ETXEZARRETA (Ikastolen elkarteko Idazkaria)

Nire gaurko hitzalditxo bariabile edo aldagai eraginkor baten inguruan joango da eta hona hemen:

Herri bat edo nazio bat eraikitzerakoan, eskolak jokatzen duen rola zein den eta aldi berean, eskola hori egite-rakoan, herrigintzak berak, herri batek historian zehar daraman prozesu barruan, hots, eskolan zer nolako islada edo eragina duen.

Lehenik eta behin esan behar dut, eskolaren arazoa planteiatzerakoan historian zehar, masa fenomeno bezala edo nolabait esateko, herri baten klase desberdinetara iristeko eman ohi den fenomeno osoa izan dela eta urte luzeetako gainera. XIX mendean eta industrializazioarekin batera sorturiko fenomenoak. Aldi berean, sortuko dira gaur egun **estatutzat** ulertzen dugun fenomenoak, hau da, Ertarotik datorren **nazio/estatu** fenomeno hori bera.

Zenbait herri egituratzeko garaian lan tresna batzuk martxan jartzen dituzte eta estatua instrumento politikotzat hartzen dutenez, eskola oinarritzko, funtsezko elementua da hauentzat. Alde batetik, herri horren sinboloak edo identifikazio eta nortasun agiriak planteiatzerakoan, hala nola; hizkuntza, historia, geografia, baloreak, ... Horrekin batera, bertan lanean arituko diren pertsonak direnez gero, estatu barruan zer nolako edukiak planteiatu beharko liritekeen aztertzeke.

Beraz, oso kontutan hartu beharreko fenomenoak dugu hauxe gure Herria kokaturik dagoeneko bi estatuen mailan, hots, Espainia eta

Frantzia alegia, zeren eta, bai frantses eskola publikoa edota, espainiar eskola publikoa egituratzekoan oso kontutan hartu bait dituzte eskolak zein zerbitzu eskaini behar

dituen. Eta eskola publikoan bai, irakaskuntza publikoak eta baita irakaskuntza pribatuak bere balore propioekin ere, estatuen balore batzuk garatu izan dituzte. Adib., gure Ikastoletan hizkuntza ez ezik, hor daude beste zenbait balore estatuen balore eta klase baten balore direnak.

Euskal Herriari dagokionez esan behar dugu ez dugula inoiz eskola propioz izan, herri honek bere egituraketa propioa, hots, herrigintza hain zuzen ere, egin gabe daukako eta sekula santan egin ez duelako.

Egin izan ditu hainbat saio baina eskasak eta estatu formarik hartu ez dutenak, eskola fenomeno eman den garaian bederen. Beraz, euskal eskolaren asignatura gaintzeke dugun asignatura dugu. Eskola propioaren jabe ez izatean ezinezkoa da hizkuntzarik, gure balore propioz eta gure nortasun sinborik garatzea, eta hori ezinbeztekoa da. Beraz, herri honek estatuz ez edukiagatik ere, izan du nolabait esateko, eskola estatualaren eragina, hots, espainola, frantsesa eta eskola pribatuarena, alegia, eta eskola espainola eta frantsesaren kasuotan bederen, euren baloreak garatu ohi dituztenak gainera, eta aipatu balore horiekin batera oso eredu kaltegarria eskaini zaio gure herri honi eta Euskal Herriak aldiz, ez du inolako mekanismorik sortu ia azken urte arte hondamendi horri aurre egiteko.

Hor nolabait ere kolonizazio bortitza gertatu da eta dudarik gabe hori ez da frankismo garaikoa baizik eta, askoz ere lehenagokoa, hau da azken ehun eta berrogeitamar urtez gero datorren fenomenoak, eta gure gizartean eragin handia bezain sakoneko fenomenoak bilakatu dena.

Ikuspegi honetatik abiatuz sortzen dira ikastolak eta gaurko errealitate hurbildu nahi badugu kontutan hartu behar dugu herrigintza mailarik baxuena dagoen garaian sor-

tzen direla **erantzun fenomeno** gisa. Ikastola erresistentziazko mogimendu handi bat bezala sortu zen eta ez sekula mogimendu organizatu eta kolektibo gisa, nahiz eta herri gehiengutan sortu. Beraz, ikastolen sortzaileek jakin bazekiten herrigintzaren partaide zirela eta halaz ere, ikastolen fenomenoaz zen proiektu elkartu eta azterturikoa izan, individualismoko borondate hutsean oinarritua, beraz hori ahaztezina dugu.

Beraz, ikastola, mogimendu alternatiboaren gisa sortu zen; euskara ez ezik horrez gainera euskal nortasunaren sinboloak ere eman ziren. Bestalde, pedagogi berri baten aukera ere eskaini zuen, hala nola, European zehar hain tradizio handikoa zen eta Katalunyatik hona ekarritako "eskola berria"ren aroa ere sartu zuen. Honi esker guraso eta irakasleak buru-belarri sartu zirenez, "rol" banaketa hori esperimendatuz; hezkidetzaren lehenengo saioak ere ikastolan eman ziren eta Euskal Herrian lehenengo fenomeno osoa da; ikastola da aldi berean beharren eraginez, zerbitzuak eskaintzen dituen, autobusak, jangelak, gestio eredu desberdin bat,... nolabait esateko beste eskola eredu bat. Baina guztiak ez dira berdinak, gauza amankomunak dituzten arren, ez dira homogeenak.

Eta zerbaitek bereiztu bazituen lehenengo fase horretan zera izan zen, lehenik; **autonomia** handiko ikastetxeak zirenez autogestionaturiko ikastetxeak ziren bai pedagogian, zerbitzutan, eta baita curriculumak diseinatzerakoan ere. Bigarrenik, **polikromia** handikoak direla, hots, pluralismo handikoak izan arren, oso kolore eta tonalitate desberdinetako ikastolak direla, eta hirugarrenik, **ez dagoela proiektu amankomun bat**.

Eta puntu horien islada garbia izan zen azken Kongresu Nazionalean egindako proiektua, hau da, Euskal Eskola Publikoa ez daiteke izan edota, ezin da ulertu gauza itxi bat, gauza homogeen bat bezala; ahaztu gabetanik, herrigintza honetako partaide garenez, klabe amankomunak eduki behar dituela eredu horrek: batetik, herrigintzan eta egituratze prozesu horretan (Euskal Herriaren subiranotasuna, nortasuna, bere burujabetza lortze prozesu horretan) eskolak jokatu behar duen papera kontutan hartzea eta bestetik, gauza amankomunak bilatu beharra, zeren eta, Euskal Herria iparraldetik hegoaldera hain desberdina izanik oso planteamendu desberdinak eduki behar bait ditu, arazo ekonomikoak, soziologiko-linguistikoak ere erabat desberdinak dituelako eta hor malgutasun handiz jokatu behar dugu. Eta puntu honetantxe zentratzen da gure ustez autonomi kontzeptua, nolabait esateko, autonomia hori talde zibil bakoitzak ahalik eta gehien gara dezala, herrigintza horretan parte hartzeko bitartekoak edukiz.

Beraz, Euskal Herria bere buruaren jabe eraikitzeko eta egituratzeko prozesu horretan, gure eskola eredu bat eraman nahi dugu aurrera, ez abertzaletasunaren aldeko eskola bat soilik, hots, lurraldetasun osoaren aldetik, baizik eta, komunitate eskolar bakoitzak (guraso eta irakasleak) kompetentzia gehientsuenak garatzeko eskubidea izango dituen eskola.

Eta gure behintzat horren aldeko apustua egin dugu.

Eta zer iritzi duzue paktu eskolarraz?

Gure ustez, espainol estatuak gure komunitate autonomoan dituen interes klabeak, eta estatuaren politika aurrera eramateko bitartekorik egokiena da, estatuaren politika nagusitzen delako. Horretan gure ustez Alderdi Jeltzaleak amore eman du, azken finean, gure defendatzen dugun bezalako eskola (eskola propiostat ulerturik) autonomoaren egituraketa galarazten duelako erabat.


Bigarrenik, estatuaren politika hori nagusitzen den bitartean PSOEk beste gauza bat ere lortu du, hots, estatuan daukan eskola eredu bera hemen ezartzea oso makilaia handirik gabe. Hitz gutxitan esateko, autonomiarik gabeko eskola, kompetentziarik gabekoa. Zeren eta zenolako tresnak eskaintzen zaizkio? Bai al dute aurrekontua gestionatzeko ahalmenik?

Bestalde, bitarteko laboralak ez daude eskola- gestiogintzaren esku baizik eta administrazioaren esku eta alde horretatik begiratuta, lan politika guztia administrazioak markatzen badu, noski, hori dela bide ekonomia eta lan errekursoak maneiatzeko, eskola horren etorkizuna erabat hipotekaturik aurkitzen da.

(Beraz, une honetan, akordio politiko fuerte baten aurrean gaude eta dena kalibratzen ari da, hain zuzen ere Euskal Herrian zer nolako ondorioak ekar ditzakeen eta horren arabera jokatzeko ari da).

Hirugarrenik arazorik larriena da batez ere alderdi abertzale batek sinatu duelako eta hauxe da: herrigintzari sekulako kaltea egiten dion eskola-formulazioa egiten delako, batez ere euskara eta euskararen normalkuntzari dagokionean. Azpimarragarria da hor egiten den euskararen planteamenduen bitartez atzera pausu edota buelta ezinezko prozesuan sartu bait dute eskolaren euskalduntzea, irtenbiderik gabeko egoeran. Hau litzateke beraz, PSOEn hirugarren interesa





Azkenik, ez dugu ahaztu behar Eskola hitzarmenerako egin den akordio honek guztiok egoera txar batean jarriko gaituen puntua hain zuzen ere ekonomiarena dela, ez delako inongo azterketa

kritikorik egin eta nazio batek identifikazio berezi batekin aurrera egin nahi baldin badu ezinbestekoa du instrumento politiko-juridikoen artean bitarteko ekonomikoa.

Zehazkiago adieraziko al zeniguke zer ulertzen duzuen AUTONOMIAz?

Autonomia ulertzeko, politikaren simila erabiliko dugu; nor da komunitate autonomoan agintaria, edota zein da toki batetan jabea? Zeinek dauka zartagia eskutik? Eta horren arabera esango dugu herri hori autonomoa den, herri hori independentea den, subiranoa den, eta zein egoeratan dagoen. Bada hemen ere jabea izan daiteke orube, eta tresneriarena, jabetza moeta hau titularitate kapituloan sartzen denez, honi **titularitate patrimoniala** deituko genioke baina eskoletan beste titularitate moeta bat ere ematen da **titularitate akademikoa** deritzoguna, eta hemen hiru kontsiderazio hartu behar dira kontutan: finantzieroa, laborala eta pedagogikoa. Eta puntu horiek definitzen ditugun heinean, izango da eskola hori autonomoagoa ala ez.

Guk daukagun autonomiaren kontzeptua ez da formulazio itxi bat, formulazio desberdinak izan ditzake. Halaz ere, hona hemen kontutan hartu beharreko klabe batzu: 1) Jabea ezin

liteke bakarra izan, horregatik planteiatzen dugun **titularitate-ak konpartitua izan behar du**. Zer esan nahi duen? Ekintza bat aurrera eramateko garaian prest gaudela (lagun bat baino gehiagoren artean) elkarren artean tratua egiteko. Eta titularitate konpartitu horretan bi maila bereizten ditugu: a) administrazioak eta eskola sareak elkarrekin deliberatu eta erabaki behar dituzten arazoak. b) Laboralean; Hemen sortuko litzatekeen kontsorzioan hots, Eskolak eta administrazioak nolabait ere, bien artean hartuko dute erabakia, hortarako sorturik dagoen gorpuzketa politikoaren bitartez. Eta d) Pedagogi arloan beste horrenbeste; elkarren artean hartuko dira erabakiak, euskalduntze plangintza, baliabideak,...

2) Nortasun juridiko propioa eduki behar du. Eskola (osotasunean) da juridikoki gorpuztuta egongo dena, lege horrek eman behar dio gorpuzketa bat, guk "corporación de derecho administratibo"aren formula eman dioguna, baina beste bat ere izan liteke. Eta nortasun juridiko horren bitartez eskolako gurasoek, irakasleek eta kasu batzutan ikasleek ere, kolektibo gisa euren eskubideak garatzeko bitartekoa eskainiko dielarik.

AMAITZEKO ETA LABURPEN GISA: GURE PROIEKTUAREKIN ESKOLA PUBLIKO BERRI BAT EGITURATU NAHI IZAN DUGU, IKASTOLOK HERRIGINTZA HORREN BARNEAN EGOERA POLITIKO-JURIDIKO BERRI BAT PLANTEIATZEN DUGULAKO.

Hauxe izango litzateke sintesi moduan emanik Iñaki ETXEZARRETAk UEUn aurkeztutako hitzaldiaren mamia.



BILINTX **LIBURUDENDA**

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean, Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

eKar s.a.

Esterlines, 10

Telef. 426319

DONOSTIA-3

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

Aldatzekoa den hitzarmen politikoa

Hitzarmen politikoaren inguruan sortutako arazoa aztertzerakoan ezinbestekoa da; kalitate prozesuetatik, euskalduntze, partaidetza eta gestio demokratikoaren ikuspegitik batipat, Eskola Publikoari egin behar litzaiokeen diagnostikoa aipatzea, kostuen azterketa eta sistema publikoaren beharrianak jasotzeko.

ANA IZAGIRRE (F.A.P.A. V./B.I.G.E.-ko partaidea)

* B.I.G.E.= Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarte

Azterketa honek, Euskal Hezkuntza Sistemari dagokion konpentsazio finantzaketa izan behar du kontutan.

Eskola Publikoaren aldaketa, beronen egoerak berak, euskal gizarteak eskatzen dizkion beharrianetara egokitzeak agintzen du.

Hitzarmen Politikoak berak jasotzen du *berezko kultur ezaugarriak* kontutan hartu behar direla: bi hizkuntza ofizialak, hezkuntz eremuan oraindik burutu gabeko arazoak,...

Gure iritziz, kalitatezko, euskaldun eta osoa den Hezkuntz Proiektua lortzeko bide bakarra, errealitatea aztertzen duena baino ez da.

Hitzarmen Politikoari eta bereziki, Euskal Eskola Publikoaren Legeari egiten dizkiogun kritikak ugariak dira.

Ez hitzarmenean eta ezta Legean ere, ez da argi adierazten Euskal Eskola Publiko Berriaren ezaugarri garrantzitsu bat; AUTONOMIArena, alegia. Ikastetxe publikoen babesaren mamiak inplizituki jarraitzen du hitzarmenean, ez da benetako giza partaidetza, gestio demokratikoa, organo erabakiorrak, gaitasun juridikorik,... bideratzen.

Ikastetxe Publikoak EZIN DIRA orain arte bezala, Administrazioaren zuzendaritza eta kontrolaren ikuspegitik hartu,



bidea azkartuko duten *berezko konpetentzien, berezko Hezkuntz Proiektuen* ikuspegitik baizik.

Hezkuntza kalitatean aurrerapenak izan badirela kontutan harturik ere, hezkuntza eskubideari dagokionez beharrezkoa da ikastetxearen hautaketa libreaz dituen eskubideak, bere osotasunean daukan garrantzia azpimarratzea (gaur legeak onartutakoa), ondorioak ikusi eta gero araudiak ipintzeko aukerarik gabe, oztopo geografikoak, administratiboak edo irakaslegoarenak galera ez dutelarik.

Orain arte ahaztuta egon den eta orain hasiberri den Haur



Hezkuntzari emandako tratamenduak (0-3 urte bitarteko garaia), biztanleria honen beharrianak eta gizarte eskakizunak baikor erantzungo dituen neurri eraginkorretarako hasiera izan behar du.

Hitzarmeneko puntu eztabaidagarrienetako bat, berriz ere, euskara da. Eskola euskaldun bat lortzeko, ikasle osoak hizkuntza hori menperatzeko daukan benetako eskubidea aintzat hartzea, helburu hori lortzeko beharrezkoak diren bideak ipintzea; irakasle euskalduntzea, gaur eguneko ereduak berrikustea eta eskubide hori lortzeko balio ez dutenak (A eredu adib.) kentzea, eskatzen duelarik.

Eskola Euskaldun batek, geure hizkuntza, kultura eta nor-tasun nazionala adierazi behar ditu bere Proiektuan. Berezko Curriculum-Proiektu baten bidez baino ezin daitezke burutu helburu hauek.

Badakigu, Euskal Eskola Publiko Berria egiterakoan oinarritzekoak diren gai hauek ezin direla egon garai historiko zehatz batzuren egoera sozialen, kokapen geografikoen... zain. ***Hitzarmen Politikoak euskalduntzea gaur bermatu behar du bihar egia izan dadin, bihar arte itxarotea berandu da.***

Arestian, egindako azterketan oinarrituta, gure ustez, gu-txienezko giza eskabideei erantzuna emateko, badira zenbait gai aldatu behar direnak Hitzarmen Politikoan.

Ardura Gorena daukaten Organoak indartzetik etorri behar du Autonomiak. Organo hauek, ikastetxe bakoitzaren Egitasmoak, Proiektuak egiteko eta burutzeko gaitasuna izan dezatela. Eskola Berria garatzen eta sendotzen lagunduko duen batasun lokarriak, koordinazioa eta planteiamendu amankomunak egiteko gaitasuna.

Autonomia eta antolaketa honek, erabakiak hartzerakoan eta berezko antolaketa ereduetan, Eskola-Elkartearen partaide guztien berdintasuna onartu behar du.

Legean adierazten den antolaketa ez dator bat autonomia eta partaidetza eskubidearekin, beraz, aldatu egin behar du:

Klaustro eta asanbladaren artean parekotasun handiagoa, asanbladari betekizun gehiago eman, batzorde iraunkorraren zehaztapena,...

Euskal Eskola Publiko Berriak "elebiduna", "ez profesio-nala", "ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko aukera emango duena", "proiektua aurrera ateratzeko irakasle euskaldun eta berarizko duena", "ikastetxeak jarraitu behar duen hizkuntza tratamendua erabakitzeke pedagogi autonomia duena", "gurasoen eskakizunaren arabera eman behar duen eredu aukeratzeko ikastetxearen berezko eskumena daukana", e.a. izan behar du.

Azkenik, eta ikastetxeen antolaketan aldaketa handia izan behar dela kontutan izanik, argi eta garbi gelditu behar dira ondoko irizpide hauek:

- Ordezkapen goren organoak gobernatzeko izango dira; beraien betekizunak izango dituzte (ez eskubideak); erabaki egingo dute (ez proposatu); egin egingo dute; aurrekontuak beharrianen arabera egingo dira eta ez alderantziz,...
- Pertsona bakarreko organoak ikastetxearen zerbitzurako daude eta ordezkapen goren organoaren menpe eta egindakoak berari azalduko dizkiote.
- Hezkuntz Proiektuaren ezaugarrietara egokitu pertsonala.
- Pertsonala aukeratzeko, ikastetxearen gaitasuna, profesionalekiko eskakizunetan eskusartzeko, (egokiak diren irizpideetan oinarrituta).

LABURTUZ: Beti ere izaten diren mugak kontutan izanda, hauek dira Administrazioari eta hitzarmena sinatu dutenei gurasoen Federakuntzatik adierazitako zenbait puntu, beste zenbait elkartetatik egindakoekin batera, Euskal Eskola Publikoaren laster bateko etorkizuna markatuko duten legeen onurarako kontutan hartuak izango direlakoan.

Irakaskuntzaren egungo egoera

Nire uste apalean eta teknikari gisa bakarrik, egungo irakaskuntzaren egoeran dauden tentsio eta beldurrak erabiltzen ari dira Gobernuan dauden alderdietatik zentzu politiko hutsean eta inolako irizpide psiko-pedagogikorik kontutan hartu gabe.

ROSA ESTELA (P.A.T.-eko teknikaria)

Irakaskuntzak birmoldaketa behar duela gauza nabarmena da. Gaur egun dagoen hezkuntz sarea egungo gizarteari egokitu behar zaio eta ondorioz, gizarte eskaera horren aurrean egoera onean aurkitzen garela uste dut. Bada garaia erronka horri aurre egiteko: Haur hazkunde tasaren jetsiera, elebitasunak eskatzen duen plangintza, teknologia berrien erabilpena, eta orohar, irakaskuntzaren oinarri psikologikoen gaurkotzeak beharrezkoak badira ere,... honek ez du esan nahi horretarako Gobernutik ezarri nahi diren ereduak ez hoberen ez eta egokienak direnik. Guztiz alderantziz esango nuke nik; tokian tokiko plangintzari ekitearen ordez planteiatzen dizkiguten irakaskuntzaren aldaketen ardatzak erabat baldintzaturik datoz eta, beraz, behar den birmoldaketarako alferrikakoak izan daitezke.

Izan ere, "hitzarmen eskolarra" deitutakoa hitzarmen politikoa besterik ez da. Bada, ez du kontutan hartzen irakaskuntzaren berezko bariabile ezta bertako elementu eraginkorrenak... bertan dihardutenen iritzia alegia.

Iritzi hori kontutan hartzen denean erakunde sindikalen arabera bideratzen da. Hori dela eta, etor daitezkeen zuzenketak posibleek maila korporatibo hutsean geratzeko arriskua dute.

Aipatutako guzti hauen emaitza bezala kontsidera daiteke "mapa eskolarraren" diseinua, non erabiltzen ari diren irizpide "dirigista" eta "sekretistak" salagarriak baitira oso. Toki eta egoera bakoitzean dagoen irakaskuntz koiunturari erantzutearen ordez uniformizazio faltsua besterik ez dutelako eskaini nahi.



Esandakoak esanda, datorkigun plangintzak irakaskuntz sareari benetako erantzuna eman diezaiokeenik zalantzan jarriko nuke.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.

Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.



Itun eskolarra posible ote?

“Gobernuak ez du euskararen erabilpena sustatu behar”, “euskarak etxean mintzatzeko baino ez du balio...” Buesa jn.ren adierazpenek lar ondo argitzen dute beraren jarrera zein den, nahiz eta gero PSOE eta PNVren asmoa, ekainaren 16ko itun politikoa sinatutakoan, “gaiarekin zerikusia duten sektore guztien artean itun bat lortzea ahalbideratuko duen parteharbizko prozesu baten sorrerarako bideak ezartzea” dela inolako lotsarik gabe esan.

LAB irakaskuntza

Gizarte-sektore batzuek,“ prestake-ta prozesu horrek itxia izateko arriskua zuela” kritikatzeko zuten, orduan jada. Gizarte-sektoreek lege proiektuarekiko ekarpenak Eskola Kontseilua eta EAEko Funtzio Publikorako Kontseiluaren bidez egin zitzaizela; eta epeak zirela eta, uztailan hezkuntz mundua ia geldirik dagoenean hori esijitzeko adierazi zuten larritasuna, ez zen batere seinale ona; atxekimendua bilatu eta dagoeneko erabakita dagoena berresteko azpijoko bat baino ez da.

Itun politikoaren mugak

Itun politikoan 6 gairi ekiten zaie: *Eskola plangintza, finantzaketa, euskalduntzea, curriculum eta Euskal Eskola Publiko eta Irakaskuntza-Taldei buruzko Lege-proiektuak*, hain zuzen.

Plangintza akordio bat gertatu da; beronen bidez sare publiko eta pribatuaren arteko hezkuntz merkatuko kuota-aren oraingo banaketa egungo egoeraren arabera iraunarazteko konpromezura iritsi da. Itun hau irakaskuntza publikoaren beheranzko joerak iraunarazteko saio bat da eta ez du inola ere bilatzen euskal hezkuntz sistema berri baten sustapen edo antolaketarik.

Hezkuntz sistema berrantolatu eta erreforma abiarazteko 19.000 milioeko aparteko finantzaketa proiektua aurrikusi da, nahiz eta 1990ean 30.000 milioekoak izan. Hau ulertu ahal izateko gizarte-zerbitzuetarako gastu publikoaren murrizketaren arabera egindako helburuen birmoldaketan pentsatu behar da. Eta hona hemen honek ekarriko dituen ondorioak: irakaslegoak Administrazioiko gainontzeko langileen aldean pairatzen duen soldata-bereizketari eustea; ikastetxeetako “ratioak” hobetzeko behar den plantila-gehikuntzarik ez burutzea eta, oraingo sare publikoarentzako inbertsioei lehentasunik ez ematea, sare pribatuan derrigo-

rrezko ez den irakaskuntza arloetan subentzioak areagotuz.

Euskalduntze irizpideak: Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legea onartu zenetik pasa diren 10 urteetako bilakeraren eta finkaturiko helburuen lorpenean egindako akatsen azterketaren emaitza izan ordez, helburuen baieztapena besterik ez da, ondoren egin beharreko balantzean porrota hain nabarmena ez dadin izan. Ikus dezagun errealitatea zein den; 3 hizkuntz ereduek jarraitzen dute, nahiz eta A ereduak irakaskuntza publikoan Administrazioa artifizialki iraunarazten ari den; B ereduak ikasleko elebiduna lortzeko zailtasunak besterik ez ditu, hala nola; epe-erdira irakasle euskalduna lortzeko konpromezua baino gehiago, ikasketa-ordu kopuru zehatzetan oinarrituriko 1 eta 2 profilen ezarpena dago eta salbuespenak salbu, oraingo egoera legeztatzea besterik ez da.

Bi lege-proiektu

Ikastetxearen autonomia ardatz-tzat duen EUSKAL ESKOLA PUBLIKO-Ari buruzko lege proiektua, praktikan, asmo deszentralizatzaile onen zerrenda hutsal izatera baino ez da iritsiko, ez diolako ikastetxeen eta orohar, sare publikoko administral-izaerari ekiten, are gutxiago jotzen, Hezkuntza Sailak Eskola Publiko Berriaren ereduari egokitzera. Ikastetxeei eskaintzen zaien autonomiak, LODEk bere garaian parte hartzeko eskubideaz sortarazi zuen frustrazioa sor lezake; "Zertarako parte hartu?"

EAEko Irakaskuntza Taldeei buruzko Lege proiektuak ez dakarkio inolako berrikuntzarik irakaslegoaren egungo egoerari, oinarrizko eta estatal legediaren arteko nahaste-borraste bat baita batipat. Egungo egituraketa ez gainditez gainera ez dakarkio inolako aldaketarik irakaskuntza publikoari, lan-promozioa eta duintasuna posibilitatuko duen lan-taiuketarik egin ahal izateko.

Administral eta batez ere funtzionari ez den biderik ez da onartzen, ez da beste alternatibarik, eta EEPren aurre-proiektuan planteiatzen den ikastetxeen autonomiaz dauden proposamen eska-sei ez zaie irtenbiderik ematen, ikastetxe publikoen behar eta interesen gainetik Irakaslegoaren eskubide eta egin-beharrei lehentasuna ematen zaielako.

Jarrera eta errealitatea

Azken hilabeteotan eta aipaturiko legeak Legebiltzarrean onartu arte "jarrera-onezko" politikan oinarrituriko hitzez beteko gaituzte: "eztabaida zabalik dago", "ekarpen guztiak jasoko ditugu", "inor ez da agertu eman daitekeen hitzarmenaren aurka..."; baina errealitatean erabat alderantzizkoa gertatzen ari da: Hezkuntza Sailak irakaskuntza publikoko 17.000 langilerentzat izango den aurreakordioa sinatu du UGTekin < % 25aren ordezkari besterik ez duen arren>; Ikastolak aldiz, diru egoera ezin okerragora eramaten ahalegindu dira, 1991ko dirulaguntzen ordainketa atzeratuz eta



1992ko diru-partidak ukatuz, horrela langileen ordainketa oztopatuz eta egoera hau dela medio, sare publikoan sartzeko aukeraren eztabaida "bideratu eta erraztu" asmoz. Bestalde, gobernukideek itun eskolar hau lortzeko "beren teknikari eta baliabide guztiakin" 9 hilabete behar izan bazuten ere, lege proiektuen bi zirriborroak eztabaidatzeko gizarte-sektoreei eman zaien epea uztailekoa izan da.

Itun Eskolarra beste zerbaite da

Itun eskolarra ez da izango benetako ituna, duela 30 urte Ikastolen mugimendua herri-ekimen gisa sortu zeneko arrazoei < euskalduntzea eta Euskal Herriko gizarte eta kultur errealitatearekiko identifikazioa > erantzuten ez dien bitartean, ikastetxe publikoetako hainbat sektorek bere egiten dituen arrazoiak direlarik, nahiz eta Administrazioa ahalegintzen den traba eta oztopoak ezartzen.

Normalizazioari < gatazka sortuko duen arazoaren desagerketa > eta hezkuntz sistemari etorkizunean garantiaz ekin ahal izateko beharrezko den kon-

tsentsu edota adostasunari erantzun behar dio, itun eskolarrak. Baina, hezkuntz sistemaren normalizazioak (itunarekin ala itunik gabe eta dekretuz — legez, kasu honetan —), bi saretan zatitzeak, hots, publiko eta pribatuan, alegia, gatazkaren iraunkortasuna dakar, Nafarroa eta Iparraldearen kasua leku-ko.

Ikastola eta eskola publikoaren konfluentzia ziurtatzen duen ituna da hain zuzen ere, irakaskuntza publikoarentzat garantiazko etorkizun bakarra. Aipaturiko akats eta arazoak konpondu gabe hitzarmen politikoa martxan ipintzean, Euskal Eskola Publikoaren Legea hau izan daiteke irakaskuntza pribatuaren aldeko bermerik onena.

Behar-beharrezkoa dugu itun eskolarra, egungo egoeraren irtenbidea izan behar du; hezkuntz sistema propio bat garatzeko eskubidearen abiapuntua; Euskal Eskola Publiko Berria da, tren hau da hartu behar duguna, baina begibistakoa da PNVk eta PSOEk, hitzarmen politikoa dela medio, ez dutela inolako borondate politikorik agertu trena igarotzeko beharrezko den azpiegitura egokirik jartzeko garaian.



Lege proiektuaren argiak eta itzalak

Itun Eskolarrerako Akordio Politikoak lehenengo emaitzak ekarri ditu: Irakasle-Kidego Ez Unibertsitarien eta Euskal Eskola Publikoaren lege proiektuak onartuak izan dira Euskal Legebiltzarrak azter ditzan.

CC.OO.-eko Irakaskuntza komisioa

CC.OOek bere ordezkarien bitartez parte handia hartu du bai Euskadiko Euskola Kontseiluak eta baita ere Funtzio Publikoaren Kontseiluak osatu dituzten azken erabakietan.

Bi lege proiektuek multzo bakarra osatzen dute. Hori dela eta, gure iritzia bietara jotzen du.

1989. urteko Maiatzean CC.OOek aipatutako legeak eta txosten lege gutziek eduki behar zituzten arau eta irizpideak zehaztu zituen. Orokorrean lortu egin dira, nahiz eta azaltzen diren zenbait hautabide edo alternatiba ez izan gure iritzikoak.

Hezkuntz sistemaren eskualdetzea, hau da, eskola-eskualdeen garapena murrizta geratzen da.

Euskalduntze mailako helburu orokorraren proposamenak horretarako aurreratzen diren baliabide eskasekin kontraesanetan daude.

Ikastolako langilegoaren **Funtzio Publikorako sarbidea** legeak zehazten duen muga dago. Bitarteko funtziona-

rien kasuan, adibidez, azken orduan desagertu egin da LOGSEn azaltzen den "balorazio orokor eta ponderatua- ren" aipamena, honek dakarren arriskuarekin eta erredakzio hori bere osotasunean ager dadila azken testuan esijituko du CC.OOek.

Gestio Autonomiaren garapenerako **Ordezkaritza-Organon Nagusia** sortarazten da, CC.OOek proposatu zuen Oinarrizko Ordezkaritza Organoren antzekoa dena.

Era honetara ikastetxe bakoitzaren autonomiaz, Ikastetxe Publiko eta Ikas-

tolen arteko, elkar egitura bat lortuko genuke; hori bai, zalu eta egokitua eskola bakoitzaren beharren arabera. Horrek iritzi eta interes desberdinen kontrajartzea erakarriko luke eta ez talde zehatz baten menpean ez egotea.

Egoera larrian dauden ikastetxeetarako dagoen **Konpentsazio Fondoa** oso garrantzitsua da. Hala ere, ez dira onartu Euskadiko Eskola Kontseiluak dohaintza eta legatuei buruz proposatzen zituen mugatasunak. Horrela oraingo proiektuaren arabera desberdintasun ekonomiko gehiegizkoak sor litezke ikastetxeen artean.





Bereziki, **Irakaslegoaren gestio konpetentziaren** atala azpimarratu behar da (64. art.) gure ustetan zentzu ezkorrean gauzatu dena.

Artikulu horiek lanpostuko hizkuntz eta profesional zehaztapenean parte hartzera baino urrutirago joan dira. Ikastetxe bakoitzak **bere irakaslegoa hautatzeko** duen posibilitatea ezartzen du. Legez kanpo dagoen neurria dela eta Funtzio Publikoari ez dagokiola begi bistakoa da. Hori dela eta, alde hori ezabatzea eskatu behar dugu. Ikastetxe bakoitzak irakaslearen profilak zehazteko eta eskatzeko ahalmena eta autonomia izan behar du, baina ez baldintza horiek betetzen dituztenen artean pertsona bat hautatzekoa.

Nahiz eta proiektuak autonomiaren defentsa sakona egin, hitz horren esanahia galdu egiten da zuzendariaren

hautaketarako antolatzen den prozesuan, CC.OOen iritzian eskolako zuzendaritzak profesionala izan behar du (lehendabizi hautatu eta gero prestakuntza sakondu) baina ez da profesionalizatu behar zuzendaritza.

Legebiltzarrerera eramandako txostenen arabera zuzendari izateko bete behar diren baldintzak hauek dira: urtebeteko aintzinasuna ikastetxean; hiru urteko aintzinasuna hezkuntzan eta **horretarako antolatzen diren ikastaro espezifikoak gainditzea**. Ikastetxearen gaitasuna zuzendari hautatzeko orduan murriztu egiten da, LODEk esandakoa alde batera utziz.

Demokrazia eta Autonomia mozturik suertatzen dira.

Gauza asko azaldu gabe geratzen dira: eskolako idazkaria kenduz **“administradore”** irudiaren ezarpena; **eskolako heziketa-proiektuaren** eragina; **“parte hartzearen atala”**,... baina desadostasun handiena **“Carrera**

docente” delakoan datza. Jaurlaritzaren ustetan beste lanpostuetara sartzeko posibilitate bat besterik ez da. CC.OOek oster, irakaslegorako promozio berezi bat proposatzen du, egokitzapen pedagogikoa eta gelako lana kontutan hartzen duena.

Bestalde, errespetatuko al dira Autonomi Elkarteko guztion arteko funtzionarien mugikortasun eta homogeneitate elementuak? Ikuskaritza eta Laguntza zerbitzuetako sarbideari buruzko proposamenak balio izango al du hauen egokitze gaitze eta berrikuntzarako?. Hauek dira Berezko Kidegoen Legeak (Estatuan berria den egoera) erakartzen dituen zenbait zalantza.

Beraz, testu hauek eta Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako Erizpena irakasle guztiok arretaz irakur ezazuela, eskatuko genizueke hemendik bertatik.




Gipuzkoa: bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián



IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ

IRAKASLE ELKARTEA

Plz. Amezketa 12 - 8.a F Donostia

Tfnoa: 45 51 00 - 22